Linkak iragarkietan eta bideoetan: **140.296**

Spotak ikustea: **+500.000** bideo ikusita.

Datu-basea: **+7.000** parte-hartzaile/ kontaktu lortu dira fidelizazio datu-basean txertatzeko.

Webguneko bisitak: kalitatezko **83.174** erabiltzaile webgunean.

Landing espezifikoak. kanpainaren eta planekin diseinatuta. Enpresa bazkideek eta haien eskaintzek **+5.000** ikustaldi baino gehiago izan dituzte.

► [Ikusi bideoa](#)

Kanpainen laburpenas

Titularra:
**ASTE SANTUKO
KANPAINA**

Produktua: Shop online/ online bidezko erosketan eskainitako enpresa elkartuen turismo-produktuak eta -zerbitzuak.

Datak: martxoak 15 - apirilak 15.

Gertuko merkatuak

Euskadi (Mugikortasunari ezarritako murrizketak)

Kanpainaren helburua jendea hurbileko ihesaldi batera animatzea izan da, Donostiara egun bateko edo biko bisitak sortzeko eta bisita gidatuak eta aire zabaleko jarduerak kontsumitzeko.

Helburu diren bisitariak: Familia, lagunak eta bikoteak. Sare sozialetako erabiltzaileak.

Kanpainaren helburua: hirira bisita egitea eragitea, shop onlineko jarduera turistikoak erakusteko helburuarekin, Donostia Turismoko bazkide diren enpresen produktu turistikoak erosiz.

Erabilitako Baliabideak / Formatuak:

DBUS eta Lurraldebusen pantailak, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Grupo Noticias eta Berria eta gure sare sozialak.

+550.000 inpaktu tokiko komunikabideetako bannerretan (Euskadi)

+50 irrati-iragarki EITB Taldean

+150.000 bidaiari egunean autobusetan 4 astetan zehar

Emaitzak:

Webgunean izandako bisitak: : Martxoak 15 - apirilak 15. Aldi horretan **142.000 bisita izan ziren webgunean**, hau da, ia zko aldi beraren (konfinamendua hasi zen) baino % 500 gehiago. **Webgunean izandako hiru bisitatik bi** kanpaineri eta ordainpeko ekintzei esker lortu dira.

Landing. Shop online.



Donostia
San Sebastián

sansebastianturismoa.eus



Donostia
San Sebastián

sansebastianturismoa.eus

Kanpainen laburpena

Titularra:

UDA HONETAN HEMEN GERATUKO NAIZ

Produktua: Shop online –
Ticketing kanpaina. Online
dendako produktuak.

Datak: Uztailak 1-abuztuak 30

Merkatuak: Gertuko
probintziak eta Frantzia
hegoaldea.

Helburu diren bidaiariak: 30 urte baino gehiagokoak. % 60 emakumeak. Interesak: Bidaia laburretan, ihesalditxoetan, kulturen, gastronomian eta kirolean interesa duten **bidaiariak**. Bikotearekin, lagunekin... bidaiatzen dute. Kotxez joan ohi dira. Marken kontsumitzaileak, sare sozialak erabili ohi dituzte, Internetez erosten dute. Zenbait hizkuntzak hitz egiten dituzte, etab.

Kanpainaren helburua: Bitarteko digitaletan (Google eta sare sozialak) eta ohiko komunikabideetan, esaterako irradian eta espezializatutako prentsan, zerbitzuen eta udan zehar Donostian eta lurraldean egin daitezkeen jarduera turistikoaren sustapena egiteko kanpaina.

Bazkideak: Online dendan produktuak saltzen dituzten enpresa bazkide guztiak.



Erabilitako Baliabideak / Formatuak:

Bannerrak, Gif bizidunak, bideoak, iragarkiak eta prentsa.

Radio Euskadi, Cadena Ser, Berria, Eitb Taldea, Sud Ouest, Gipuzkoa Tour, etab.

Emaitzak uztailak 1etik abuztuaren 31ra:

Banner/bideoetako inpaktuak **+2,8 milioi inpaktu**.

Webgunean izandako bisitak, **390.000 erabiltzaile: 40.000 ekintza/klik** webgunean eta dendan

► [Ikus kanpaina](#)



Kanpainen laburpena

Titularra:

**UDAZKENA DONOSTIAN:
AMODIOZKO ISTORIAO
KANPAINA**

Produktua: **Helmuga Citybreak**
Data: **Irailak 15-azaroak 1**
Merkatuak: **Estatuko merkatua eta Frantzia hegoaldekoa. 600 km baino gutxiagora dauden hiriak eta Donostian interesa dutenak/online bilaketak egin dituztenak.**

Helburu diren bidaiariak: 35 urtetik gorakoak, sare sozialak eta bitarteko digitalak erabiltzen dituztenak eta online erosten dutenak. Bikotearekin, lagunekin... bidaiatzen dute. Onlineko erosketarekin lotuta, turismogunearen posizionamendua aintzat hartzen duten zaletasun eta gustuak bilatzea. Kulturarekin, zinemarekin eta Zinemaldiarekin lotura duten gustuak; izan ere kanpaina egiteko inspirazioa Woody Allenen azken filma eta hirian grabatu zena izan da, "Rifkin's Festival".

Helburua: Donostia udazkenean joan-etorria egiteko leku erakargarri gisa aurkeztea. Udazkeneko planak. Woody Allenen ibilbidea, "Rifkin's Festival" filmaren hiriko grabaketan inspiratua.

Baliabideak / Formatuak:


Kanpainaren pieza nagusia ikus-entzunezko lan bat eta bertatik eratorritako banner digitalak izan dira. Kanpainaren % 80 online izango da, eta prentsa idatzian eta irratan ere egingo da publizitatea

Udazkenerako planik onenekin landinga egin da; ibilbideak, kanpoaldean egiteko planak, erakusketak, museoak eta komertzioak, besteak beste.

Emaitzak:

+3,8 milioi inpaktu banner eta bideoetan.

Kanpainan **37.000** klik heldu dira /**+31.000** saio



► **Ikus kanpaina**

Kanpainen laburpena

Titularra

**GABONETAKO
KANPAINA. SENTITU
MAGIA DONOSTIAN.**

Produktua: Gabon aurrerako eta Gabon-garairako leku erakargarri gisa sustatzea Donostia. Hiria gastronomiarako, erosketetarako eta citybreakerako turismogune gisa kokatzea. Lekua umore apur batekin sustatzea.

Sorkuntzak eta mezua tokiko, hurbileko publikoarentzat eta Euskaditik kanpokoarentzat egokitu dira. Tokiko publikoarentzat (Euskadi) eta urrunagotik (Espainiatik eta Frantziatik) datorrenarentzat egokitu dira sorkuntzak eta piezak.

Datak: Azaroak 11 - urtarrilak 6

Merkatuak: Espainia eta Frantzia hegoaldea. 500-600 km baino gutxiagora dauden hiriak eta interesa eta konexio onak dituztenak.

Helburu diren bidaiariak: 30 urte baino gehiagokoak, bikoteak, seme-alabarik gabeko familiak, lagunak. Hiri txikiekiko, ertainekiko eta citybreakiekiko interesa dutenak. Autoz bidaiatzen dutenak, erosketetan interesa dutenak, gastronomian, etab.

Kanpainaren helburua: Irudia, hiriaren brandinga, bisitariak erakartzea eta webguneko bisitak areagotzea. Halaber, zozketa bat egin dugu parte-hartzea sustatzeko eta datu-basean erabiltzaileak gehitzeko, balizko bisitariak izan baitaitezke. Fidelizazioa.

Bazkide kopurua: Bazkide diren 30 enpresa baino gehiagok lagundu digute zozkatzeko Gabonetako 3 saski osatzen.



Kanpainen laburpena



[▷ Ikus bideoa](#)



[▷ Ikus bideoa](#)



[▷ Ikus bideoa](#)

Erabilitako Baliabideak / Formatuak:

Kanpaina % 100 online, digitala. Bideo laburrak, banner bizidunak eta bideo luzeak landingean eta Youtuben.

Emaitzak:

+7.900.000 inpaktu.

Klikak: **+66.000** klik kanpainen.

Webgunean izandako bisitak: **+45.000** bisita

Parte hartu duten enpresa bazkideen kopurua: **40 enpresa** bazkide baino gehiago.

Zozketako parte-hartzaileak: **+7.600** parte-hartzaile. Datu-baserako parte-hartzaile berriak.

Kanpainen laburpena

Titularra:
**DONOSTIA
ElkarREKIN**

Produktua: Donostia kongresuetarako toki gisa eta Donostia Turismoa ekitaldiak eta bilera antolatzeko informazioa ematen duen erakunde gisa sustatzea
Datak: Martxoak 1-maiatzak 1
Merkatuak: Donostia eta Gipuzkoa.

Helburu diren bidaiariak: 25 langile baino gehiago dituzten Gipuzkoako enpresen arduradunak. Gipuzkoako herritarrak.

Kanpainaren helburua: Gipuzkoako enpresei ekitaldiak antolatzeko segurtasun-bermeak emango dizkieten aukerak ezagutaraztea.

Hiriko ekitaldien eta kongresuen sektorea berraktibatzea eta, era berean, bilera egin ditzaten sustatzea.

Hiriko MICE eskaintza balioestea.



Lan-bilera bat egiteko konfiantzako leku baten bila bazabiltza,
DONOSTIA ELKARREKIN egitasmoa aurkezten dizugu

Topaketa profesionalak modu seguruan egiteko gure hirian dauden leku harrigarriak erakutuko dizkizugu eta, horrela, tokiko ekonomiaren alde egingo duzu. Gainera, gure doako aholkularitza-zerbitzuaren laguntza ere izango duzu.

DONOSTIA ELKARREKIN



T. 943 481 164 | congress.sansebastianhurismoc.eus



Lan-bilera bat egiteko konfiantzako leku baten bila bazabiltza,
DONOSTIA ELKARREKIN egitasmoa aurkezten dizugu

Topaketa profesionalak modu seguruan egiteko gure hirian dauden leku harrigarriak erakutuko dizkizugu eta, horrela, tokiko ekonomiaren alde egingo duzu. Gainera, gure doako aholkularitza-zerbitzuaren laguntza ere izango duzu.

DONOSTIA ELKARREKIN



T. 943 481 164 | congress.sansebastianhurismoc.eus

Kanpainen laburpena



Erabilitako Baliabideak / Formatuak:

25 langile baino gehiagoko Gipuzkoako enpresen datu-basearen posta elektronikoa - marketin ekintza. + 8.000 enpresari bidaltzea.

Telemarketin ekintza: Gipuzkoako **800 enpresa** baino gehiagorekin jarri gara harremanetan telefonoz.

Kanpaina digitala tokiko komunikabideetan: Grupo Prisa, Diario Vasco, Berria. Banner bizidunak. Landing espezifikoa sortu da eta erakundearekin harremanetan jartzera eta aukerak kontsultatzen animatuko da.

Bazkideak: Azpiegituren presentzia, espezializatutako agentziak, etab.

Zuzeneko emaitzak:

Publizitate-iragarkiak: **700.000** (DV.com, Grupo Prisa).

Linkak iragarkietan eta bideoetan: **140.296**.

Webguneko bisitak: kongresuen webguneak **4.500 bisita** izan ditu kanpainan (aurreko hilean baino +% **267**. **3.500 bisita izan dira** ordainpeko kanpainari esker. Bisita organikoak* ere nabarmen igo dira egun horietan.

**Igoera izan da martxotik, telemarketinarekin eta buletin bidalketarekin bat eginez.*



¿Y por qué no organizar un encuentro profesional en un lugar sorprendente?

Le presentamos **SAN SEBASTIÁN REUNIDA**
Un proyecto de San Sebastián Turismoa con un doble beneficio:

- 1 Por una parte, tendrá a su disposición una variedad de lugares de nuestra ciudad para celebrar de forma segura y exitosa encuentros o eventos profesionales.
- 2 Por otra parte, apoyando estos lugares, estará ayudando a la economía local.

San Sebastián Turismoa le ofrecerá **asesoramiento gratuito** para encontrar el lugar que mejor se adapte a sus necesidades. Solas de exposiciones, museos, reservados de hotel o terrazas con vistas al mar son solo algunas de las opciones.

Si quiere saber más sobre **SAN SEBASTIÁN REUNIDA** entre en contacto con nosotros en:

900 000 000 | reunion@sansebastiaturismoa.es

Ekintza Bereziak

**Donostia Biarritz
marka berria
BI HIRI ETA
TURISMOGUNE
BAT**

Kanpainaren helburua: Helburua bi hiriak batera sustatzea da, helburu diren nazioarteko bidaiariak handituta eta desestazionalizazioa sustatuta.

Antzekotasun ugari dituzten bi hiriak marka turistiko baten pean batzea eta sustapen-estrategia bateratua egitea, indarrak batu eta bidaiari berriak lortzeko.

Merkatuak: Frantziakoa, Espainiakoa eta tokikoa. Turismo arloko sustapena hiri-turismogune txikiak edo ertainak nahi dituzten, naturari (itsasoa, mendia...) garrantzi handia ematen dioten edo bizi-kalitate handiko kultura arloko turismoguneak, kirol-esperientziak, ongizatea, gastronomia, premium zerbitzuak eta abar bilatzen dituzten esperientziatzko bidaiariei zuzenduta egongo da.

Ekintzak: Logoa, claim eta gidaliburua korporatiboa sortzea.

Webgunea sortzea:

<https://sansebastianbiarritz.com/>

Produktu turistikoak sortzea: **Donostia eta Biarritz arteko zuzeneko autobus-zerbitzua.**



Ekintza Bereziak

ZUZENeko AUTOBUS- ZERBITZUA SUSTATZEKO KANPAINA

Produktua: Zuzeneko autobus-zerbitzua. Bi hiriak batzen dituen zerbitzu azkarra eta ekonomikoa. Donostia eta Biarritz.

Datak: 2 fase: Uda eta eguberria. Uztailak 1-irailak 1 / abenduak 4- urtarrilak 2

Merkatuak: Euskadi, Nafarroa, Iparralde

Kanpainaren helburua: Bi lekuen arteko bidaia sortzea. Donostiatik Biarritzera eta Biarritzetik Donostiara. Biarritz bisitatzera gonbidatzea; erosketak egiteko, baliabide turistikoak bisitatzeko eta gastronomia dastatzeko.

Erabilitako Baliabideak / Formatuak:

Ohiko komunikabideak, off line. Prentsa eta irratia: Cadena ser, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, komunikabide digitalak: DV.com, Sud Ouest, Sisters and the city, etab. Google eta sare sozialak. Dbus eta Lurreldebuseko pantailak.

Emaitzak:

Inpaktuak: **263.276 inpaktu** baino gehiago komunikabide digitaletako bannerretan.



Ekintza Bereziak

Titularra:

**GABON HAUETAN
ETORRI DONOSTIARA
ETA APARKATU DOAN.**

Produktua: Erosketak egiteko turismogunea/hiria. Illunbeko parkinga eta autobusa

Datak: Azaroak 29 - urtarrilak 6

Merkatuak: Euskadi, Nafarroa, Iparralde.

Kanpainaren helburua: Gertuko bisitariak lortzea. Hiria bisitatzera gonbidatzea, Gabonetako erosketak egiteko eta gastronomia dastatzeko, "doako aparlakekua eta erdigunera joateko lotura-autobusa doan" kanpaina erabiliz.



Erabilitako Baliabideak / Formatuak:

Ohiko komunikabideak, off line.
Prensa eta irratia: Cadena ser, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, komunikabide digitalak: DV.com, Sud Ouest, Sisters and the city, etab.

Emaitzak:

Inpaktuak: **700.000** inpaktu baino gehiago komunikabide digitaletako bannerretan.

Babesletzak eta beste ekintza berezi batzuk

Babesletzak eta lankidetzak hiriko ekitaldiekin

Kiroletako babesletza. Zaldi-lasterketa Donostiako Hipodromoan

Donostiako Hipodromoko jardunaldietako batean, lasterketa bat babestu dugu. Uztailaren 3ko 3. Lasterketa babestu dugu.



Uztailak 3, lasterketaren babesletza.

Kultur ekitaldien babesletza. Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XXXII. Astearekin lankidetzak

Beste behin, fantasiako eta beldurrezko zinemaren astearekin lankidetzan aritu gara, Zinemaren asteak 3 hamarkada daramatza hiria zinemarako turismogune gisa kokatzen eta bisitariak eta zaleak erakartzen ditu sasoz kanpo. Azken urteotan, hazi egin da nazioartean Japonekin eta beste leku batzuekin izandako hitzarmenei eta nazioarteko zikloi esker.

Spot txiki bat eta grafiko bat egin dugu honetarako.



Babesletzak eta beste ekintza berezi batzuk

Ekitaldi profesional baten babesletza. CDC, sortzaileen kluba.

Sortzaileen kluba hiriko ekitaldi eta kongresu batzuetan izandako lankidetzaren ordainetan egiten den sormen-kongresua da. Donostia Turismoak parte hartzen du aldizkarietan eta/edo inprimatutako edizioetan, eta marka hainbat euskarritan ageri da, hala nola webgunean, ekitaldi fisikoan, etab.

Kiroletako babesletza:

Erremontea. Udako Txapelketa. Galarreta Pilotalekua 20 km-ko lasterketa. Behobia-Donostia. Donostiako maratokia.

Gastronomiako babesletza:

Repsol Eguzkien Gala.
Gastronomiako Talentuaren DV_ Saria.
Diálogos de Cocina.

Kiroletako ekitaldien babesletza: Auto Klasikoen Donostiako Rallya.

Argazkilaritza Lehiaketaren babesletza: Tecnum Donostia Jasangarria (martxan).

Babesletza solidarioa: Pink Force Foundation babesa.



Beste ekintza batzuk

Halaber, sustatzeko beste jarduera mota batzuk egin dira, hala nola tokiko ekitaldien babesak eta lankidetzak:

DV. Ekitaldien gehigarria.

Diario Vasco egunkariaren gehigarri berezi batean parte hartu dugu babestutako artikuluekin eta publizitatearekin, hiriko ekitaldien eta kongresuen egoeraren berri emateko.



Horietan laguntza ekonomikoa eman dugu, euskarrietan edo ekitaldiko irudietan Donostia Turismoaren irudia jartzearen truke.

4.1.2. Webgunea eta sare sozialak

Webgunea eta sare sozialak hiriaren erakusleioa dira, gauza erakargarriena, ekitaldiena... Eta bisitariekin zein herritarrekin berehalako interakzioa izateko bitartekoa dira. Horregatik, etengabe eduki berria, erakargarria eta praktikoa sortzeko lanean aritu gara, erabiltzaileei entzuteko eta interakzioa sustatzeko, kalitatezko argazkiak eta irudiak eguneratzeko, etab.


Aisialdiko bisitarien zuzendutako webgunea



Donostia Turismoaren webguneko bisitak zein erabiltzaileak areagotu egin dira; % 74 inguru igo dira 2020arekin alderatuta eta 1.365.000 bisita eta milioi bat erabiltzaile inguru izatera heldu da. Webgunea nabarmen jaitsi zen 2020ko otsailean munduko osasun-krisia zela eta, eta udan apur bat igo zen arren, webguneko emaitzak ahuldu egin ziren. 2021ean, aldiz, susperraldia egonkortu egin da, ekainetik aurrera bereziki, eta urte amaieran 2019an baino kalitatezko bisita gehiago izan dira. Hala ere, oraindik ez da 2019ko bisiten eta erabiltzaileen puntu gorenera heldu.

Hileroko bisitak

Online dendako erosketek izan duten gorakada nabarmendu behar da; % 484 igo dira.




Kanalaren bidezko bisitak

Kanal organikoko bisitak % 87 areagotu dira.

Kanal guztien artean nabarmentzen da publizitateak sortutako trafikoaren igoera, baita posta-elektroniko bidezko trafikoa ere, ia 10.000 bisitetara heldu baita.


Erreferentziarako trafikoaren artean, donostia.eus, tourisme.biarriz.fr eta sansebastianbiarriz.com dira trafiko-iturri nagusiak.



Hizkuntzak (ordainpeko trafikorik gabe)

Hizkuntzen banaketa 2021ean.

2021ean, hizkuntza guztiak areagotu dira, nahiz eta frantsesa ingelesa baino hobeto suspertu den.



1.	/es/	1.178.495	%55,62
2.	/fr/	558.633	%26,37
3.	/en/	358.126	%16,90
4.	/eu/	23.440	%1,11

MICE turismora zuzendutako webgunearen atala




Gailuak

(ordainpeko trafikorik gabe)


Kongresuen batez besteko erabiltzaileak webgunea **bere ordenagailuan eta bulegoko ordutegian kontsultatu du.**

Mugikorraren erabilerak gora egin duen arren, ez da webgunearen beste publiko batzuentzako bezain garrantzitsua.


Idazmahaiko ordenagailua
Tablet-a
Mugikorra



2021 - Urtarrilak 01
2021 - Abenduak 31




2020 - Urtarrilak 01
2020 - Abenduak 31



Hilabeteko bisitak

18.477 bisita 2021ean zehar. 2020arekin alderatuta bisita-kopurua % 54 areagotu den arren, pandemia aurreko trafikoaren kopurutik urrun gaude.

35.648 orrialde ikusi zituzten **15.108** erabiltzailek (% 61eko hazkundea).




Kanalaren bidezko bisitak

Kanal organikoa da kanal nagusia; bisiten % 47 hortik etorria da.


2021ean, bisiten % 82 nazionalak izan dira.

- Organic Search
- Direct
- Referral
- Social
- Email
- other
- Paid Search
- Display



Bisitaldien portzentaiak herrialdeen arabera

- Spain
- France
- United States
- United Kingdom
- Brasil
- Germany



Prentsarentzako eta agenteentzako webguneko atalak




Hilabeteko bisitak

5.766 bisita 2021ean zehar. Bisitak %4 murriztu dira 2020arekin alderatuta.


10.431 orrialde ikusi dituzte **4.679 erabiltzailek** (-% 3).

2021eko bisiten % 33 kanal organikotik datoz. **Gehien igo dena soziala izan da.** Trafiko sozialaren % 47 Facebookeko bisitak izan dira, % 29 Instagramekoak eta % 18 Twitterrekoak. **Instagram izan da gehien hazi den sare soziala.**

Gaztelaniazko atalak bere garrantziari eutsi dio 2021ean. Ingelesa gutxiago erabili da eta **euskara igo egin da; gutzizkoaren % 8 izan da.**



Irisingarritasun turistikoa iri buruzko webgunearen atala.




Hilabeteko bisitak

Atal hau 2020an sortu zen eta 26.740 bisita jaso ditu 2021ean, aurreko urtean baino % 690 gehiago. Bisiten % 82 kanal organikotik datoz.

Erabiltzaileek batez ere **parkingen inguruko informazioa eta nola mugitu** bilatu dute (tren turistikoa, autobusak, etab.).

Erabiltzaile gehienak **Espainiatik edo Frantziatik** sartzten dira webgunera. Hizkuntzari dagokionez, frantsesa guztizkoaren % 17 da.



Jarraitzaile gehiago eta interakzio handiagoa sare sozialetan



San Sebastian Tourism / Donostia Turismoa
17 de octubre de 2021 · 🌐

Y así, casi sin darnos cuenta, octubre ha aterrizado en Donostia... y la ciudad se ha convertido en un auténtico espacio 🏡 de paz y serenidad. And so, almost without realizing it, October has landed in Donostia... and the city has become a true 🏡 space of peace and serenity.

Eta horrela, ia konturatu gabe, urria etsi da... eta Donostia 🏡 bakearen eta lasatasunean murgildu da... Ver más

16 963 Personas alcanzadas
502 Interacciones

Promocionar publicación

24 veces compartido



Donostia San Sebastián ... 1 Dic 2021
¿Viene el puente de diciembre a Donostia / San Sebastián?

Donostia ya está vestida de Navidad y iludumbra. 🎄 Con estas ideas que te damos podrás disfrutar al máximo del Puente de Diciembre en San Sebastián.

[bit.ly/PuenteDiciembre...](#)


#kaxoDonostia
#sansebastiantourism

Donostia San Sebastián ... 1 Dic 2021
Bacatzat Abenduko zubian Donostia? Hiriak Gaboneti ongietorria emateko prest dago eta gale-jantzia 🍷 jami du dagoeneko! Proposatutako dizkizugun ideien eskutik bete-betean dastatuko duzu Donostiaren atsegina.

[bit.ly/AbendukoZubiaD...](#)

#kaxoDonostia
#sansebastiantourism

Sare sozialetako komunitateak eta interakzioak handitzen joan dira nabarmen urtetik urtera, eta kopuru hauetara heldu da:



4.1.3.


Press tripak edo prentsa-bidaia / Bloggerrak

Donostia Turismoak nazioarteko komunikabideekin lankidetzan lan egin ogi du, Donostia kalitatezko turismogune gisa kokatzeko mundu mailan, eta arreta berezia jartzen du lehenetsunezko merkatuetan (Frantzia, Alemanian, EBn, Eskandinaviako herrialdeetan, Herbehereetan, Belgikan, ABEn, Kanadan, Japonian, Australian...). Mugak itxi eta mugikortasuna murriztu zenez, 2021ean normalean baino prentsa-

bidaiari gutxiago izan ditugu. Hala ere, komunikabideak artatzen eta haiekin elkarlanean jarraitu dugu ohi bezala. 2021ean, 24 prentsa-bidaia artatu dira eta 34 online komunikabide. Elkarlanean aritu garen komunikabideen artean daude GEO, Vanity Fair, AD, National Geographic, El País, Vogue, Guia Routard, Traveler, Børsen, The Irish Independent, Mujer Hoy, Sundry Times, La Vanguardia, etab.

Herrialdeek artatutako medioak

- Medioak
- Press Trips



4.1.4. Prentsaurrekoak eta buletinak

Kanpoko sustapenerako komunikazioaz gain, Donostia Turismoaren bazkide diren enpresak informatzeko eta formatzeko komunikazio-ekintza batzuk ere diseinatu dira, turismoaren sektorerara eta herritarrengana bideratzeko.

Donostia Turismoaren asmoa da hiriaren kudeaketa publikoan eta turismo pribatuan erreferente nagusia izatea, eta horretarako, bere jardueraren berri ematen du komunikabideen, albisteen eta newsletterren bitartez.

2021ean, elkarrizketen, albisteen eta prentsaurrekoen kopurua batuta, 148 inpaktu sortu dira eta presentzia bermatu da tokiko eta erkidegoko komunikabide nagusienetan - EITB, telebista, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, RTVE, Radio San Sebastián/ Cadena SER, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, COPE, Donostiatik, RNE, Habla Radio, Gipuzkoa Gaur eta beste-, baita aisialdiaren negozioaren arloko turismo-sektoreko komunikabide espezializatuetan ere, hala nola Nexotour, Evento Plus, Agent Travel, Hosteltur eta abarretan.

2021 ■ Elkarrizketa ■ Albisteak ■ Prentsaurrekoak

▷ [Ikusi aisialdi-turismoarekin zerikusia duten albisteak](#)



▷ [Ikusi bileren turismoarekin zerikusia duten albisteak](#)



Halaber, hilero buletinak edo newsletterrak bidali dira bi bertsiorekin; Donostia Turismoaren enpresa bazkideentzako barne-informazioarekin bata, eta tokiko komunikabideentzako, eragileentzako, stakeholderrentzako eta beste harpidedun batzuentzako bestea, 4 hizkuntzatan.

Buletinek sektoreko albisterik esanguratsuenak jasotzen dituzte, erakundea egiten ari den ekintzen eta jarduera berrien sustapena, kongresurik nabarmenenak, nazioarteko prentsan hiriari buruz dauden erreportajeak, hileroko planak, etab.

► [Ikusi 2021eko newsletterrak](#)

The collage displays various digital marketing assets for Donostia Turismoa. It includes a screenshot of the website's membership section, a video newsletter about the lack of tourism, a 2020 memory graphic, and two newsletter snippets regarding new meeting rooms and upcoming meetings.

4.1.5. Argitalpenak

Donostia Turismoaren argitalpenak hiriaren posizionamendua ezagutarazteko, eta erakundearen enpresa bazkideak eta turismogunea sustatzeko tresna garrantzitsua eta indartsua da, aniztasuna eta hedapen masiboa direla eta. Urtero berritzen da edukia turismogunearen eta erakundearen enpresa bazkideen informazio-behar berrietara egokitzeko.

Argitalpenek turismoak Donostian eta lurrandean duen inpaktua banatzeko

garrantzia islatzen dute, auzo guztiek eta bertan lan egiten duten enpresa bazkideek etekinak izan ditzaten. Beraz, hiriko turismo-eskaintzaren informazioa eremu edo auzo desberdinetan dago banatuta.

2021EKO Argitalpenak

- **Mapa ingelesez-frantsesez**
- **Ticketing argitalpena**
- **San Sebastián Card mapa**
- **2021-2022 Gabonetako agenda**

Hiriko Planoa

- 2021ean, hiriaren ingelesezko/frantsesezko hiriko planoak eguneratu dira Frantziako hedapena handitu ahal izateko.
- Argitalpen-eguna: uztaila, 2 hizkuntza/1 edizio.
- Frantsesa-ingeleza (250.000 ale).



Ticketing

- Argitalpen eguna: 2021eko ekaina
- 4 hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa) edizio bakarrean.
- Unitateak: 10.000



Txartel turistikoaren argitalpena:

SS Card

- Argitalpen eguna: 2021eko ekaina
- Unitateak: 10.000
- 4 hizkuntzatan bi ediziotan: 8.000 gaztelaniaz-ingelesaz eta 2.000 euskaraz-frantsesez



Flyer bateratua

- Argitalpen eguna: ekaina
- Unitateak: 10.000
- 4 hizkuntzatan bi ediziotan
- 7.500 gaztelaniaz-ingelesaz eta 2.500 euskaraz-frantsesez





Agendak

2021-22 Gabonetako agenda
 2 edizio. 4 hizkuntza online edizioan eta inprimatutako edizioan.
 6.000 ale.



4.2. MICE Turismoa

Kongresuen eta Ekitaldien Sailak 30 urte baino gehiagoko esperientzia du eta ildo desberdinak lantzen ditu helburu hauekin:

Donostiarako ekitaldi profesional estrategikoak sustatzea eta ahalbidetzea, ezagutza zabaltzea eta irabazteko eta ikerketa, berrikuntza eta tokiko ekimenen sorkuntza sustatzeko.

Donostiako eta Gipuzkoako eragile publiko-privatuekin elkarlanean aritzea.

Tokiko MICE sektoreko hornitzaileak elkartzea eta tokiko I+G komunitatearen zerbitzura jartzea, haien jardura ikusarazteko eta Donostia ezagutzaren, berrikuntzaren eta garapenaren erreferentziatzeko turismogune gisa kokatzeko.

Donostiarren zerbitzura dagoen ondarea sortzeko ekarpena egitea.

Kongresuei dagokienez, eta hiriak edertasuna berdingabea duela kontuan hartuz, nabarmengarriena eta MICE sektorearen motorra da hiriak zientzian eta berrikuntzan egiten duen inbertsioari esker, Donostia munduko hiri zientifiko nagusien artean dagoela.



22 ikerlari 1.000
biztanleko

(Batez besteko nazionala
4,6 1.000 biztanleko)

Estrategiaren bulegoa
(Donostiako Udala)

Ekoizpen zientifikorik handiena
duten munduko 200 hirien artean

Munduko Ikerketa Zientifikorako
Zentrorik kolaboratiboena

Nature Aldizkaria

8. turismogune nazionala,
2019an kongresuak
erakartzeko izan zuen
gaitasunarengatik

ICCA

(International Congress and
Conventions Association)

2019ko kongresuen % 62,7
nazioartekoak izan ziren

Donostia Turismo
(Donostiako Udala)

Talentuaren eta ezagutza-trukearen erdigunea

Ezagutza arlorik nagusienak sektore hauetan daude; Nanozientzian, Energiari, Garunean, Materialetan... Arlo horiek ikertzen dituzten profesionalak **tokiko erakunde sustatzaile** desberdinetan daude, hala nola Basque Centre on Cognition, Brain and Language (BCBL), Materialen Fisikaren Zentroan (CFM), Unibertsitateetan, Unibertsitate Ospitalean edo Tecnalian.

Gure helburua da hirian egin daitezkeen balizko ekitaldiak bilatzea, ikertzea, aztertzea eta identifikatzea eta tokiko profesionalekin harremanetan jartzea ekitaldi horien enpresa sustatzaile gisa jarduteko eta horrela ekitaldi profesionalak bereganatzea lortzeko. Ekitaldi horiei esker ezagutza trukatu eta Donostia bileren turismogune gisa koka daiteke.

Alde horretatik, turismogunean sortutako ezagutza guztiak du erakusleihoa **ekitaldietan**; izan ere, horiek **batu eta ikusarazten dute ezagutza eta erakartzen dute berrikuntza**.

Gure **enpresa bazkideak** garrantzitsuak dira; izan ere, haiek bermatzen dute ekitaldiaren profesionaltasuna. Kongresuetarako prestatutako azpiegiturak eta hotelak beharrezkoak dira, baita profesional onak ere balioen kate osoan, hala nola OPCetan, DMCetan, kateringean eta zerbitzu guztietan, oro har.

Egoitzak eta hotelak primeran egokitu dira COVIDaren egoerara eta erakundeen edo antolaketa-enpresen eskura jarri dute ekitaldi hibridoak eta digitalak egiteko azkeneko teknologia eta erabateko segurtasuna bermatu dute higiene-protokoloekin, segurtasunarekin eta une bakoitzean indarrean zeuden edukierekin.

4.2.1.

Ekitaldi profesionalak lortzea

CRM

2013tik, garapenerako eta kudeaketarako gure CRMa dugu, eta horri esker, kongresuen, bileren eta hautagaitzen kontrola eraman dezakegu, horiek lortu ahal izateko.

Saileko lan-tresna nagusia da, ezinbestekoa da jarraipena egiteko eta ekitaldiak erakarri eta erregistratzeko, eta Kongresuen eta Ekitaldien Saileko behar espezifikotara dago egokituta.

Datuak bertara etengabe sartu direnez, egun hirira ekitaldi profesional bat ekartzeko baliagarriak izan daitezkeen 3.000 erregistro ingururen kontaktuak ditugu (elkarteak, agentziak, enpresak, ikerketa-zentroak...).

2021ean zehar, aplikazioa optimizatu ahal izateko eta bertatik informazio guztia ateratzeko hobekuntzak egin dira. Aurten **harreman komertzialen** atala gehitu dugu eta aukera eman digu urtean zehar egin ditugun eta pertsona eta kongresuekin lotu ditugun ekintza komertzial guztiak erregistratzeko.

Ekitaldi profesionalerako hautagaitzak

Ekitaldiak lortzea funtsezko zeregina da bai epe ertain eta luzerako emaitza onak bermatzeko, bai gure funtzioa enpresa sustatzaileen, erakundeen eta kongresuak antolatzen dituzten enpresen artean ezagutarazteko. Zeregin horretan eragina izan du pandemiak kongresuen ordena logikoa aldatu baitu. 2021eko edizio asko atzeratu egin dira, eta beste batzuk hibridoak edo online bihurtu dira.

Gainera, Kongresuen eta Ekitaldien Sailak **hautagaitzak aurkezteko materiala berritu du**, etengabe informazioa egokituz, datuak, etab.

2021ean egindako hautagaitzen eta kongresuen babesa

Kongresuak jarduera ekonomiko garrantzitsuak dira turismoguneentzat. Eragin ekonomikoa agentzietan, azpiegituretan, hoteletan, jatetxeetan, garraio-enpresetan edo komertzioetan igartzen da. Ondorioz, ekitaldiaren inguruan jarduera ekonomiko eta lan-eskaintza zabala sortzen da. Bestalde, bada beste balio erantsi bat ere; ekitaldiei esker turismogunea kontzeptu edo sektore estrategiko jakin batzuen inguruan kokatzen da, hala nola berrikuntzaren edo jasangarritasunaren inguruan. Kongresuen garrantzia dela eta, Donostia Turismoak laguntza logistikoa, ekonomikoa eta sustapeneko eskaintzen die kongresuei. Arreta berezia jartzen du hautagaitza fasean dauden ekitaldiak lortzeko laguntzetan.



2021ean aurkeztutako hautagaitzak

Urtean zehar 7 hautagaitza aurkeztu dira guztira. Horietatik 3 hirian izango direla berretsi da, 1 galdu egin da eta besteak erabaki zain daude.

Kongresua	Egin den urtea	Egin den egunak	Parte-hartzaileak	Egoera
CONAIF KONGRESUA (Instalatzailleen eta Fluxuen Elkarleen Konfederakunde Nazionala)	2023	2023ko apirila edo urria	300	Irabazia 2022/10/26-27
INTERNATIONAL WATER ASSOCIATION WATER LOSS CONFERENCE (IWA)	2024	2024/04/14-17	500	Ikerketa fasea
FAMILIAKO ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZAREN ESPAINIAKO ELKARTEAREN KONGRESUA (SEMFYC)	2023	2023ko maiatza edo azaroa	2500	Irabazia 2022/05/10-13
EPIDEMIOLOGIAKO ESPAINIAKO ELKARTEAREN URTEKO BATZAR ZIENTIFIKOA (SEE)	2022	2022/08/30-09/02	500	Irabazia 2023/08/30-09/02
IALC WORKSHOP (INTERNATIONAL ASSOCIATION FOR LANGUAGE CENTERS)	2023	2023ko martxoa edo apirila	300	Galdua
EUROPEAN ROWING COASTAL CHAMPIONSHIPS (ERCCH)	2022	2022/10/26-11/05	500	Ikerketa fasea
GLOBAL WORDNET CONFERENCE (GWC-GWA)	2023	2023/01/24-27	50	Ikerketa fasea Ebazpena: 2022/06/30

A) IRABAZITAKO HAUTAGAIETATIK LORTUTAKO KONGRESUAK

- **FORCE11 ANNUAL CONFERENCE:** 202an aurkeztu eta irabazi zen 2021eko abenduak 7-9, 350 pertsona
- **PEDIATRIAKO LARRIALDIEN ESPAINIAKO ELKARTEAREN XXV. URTEKO BATZARRA (SEUP):** 2020an aurkeztu eta irabazi zen 2021eko martxoak 03-06, 823 pertsona
- **ERREUMATOLOGIAKO ESPAINIAKO ELKARTEAREN ESPONDILOARTRITISARI BURUZKO SINPOSIOA (SER):** 2016an aurkeztu zen 2021eko azaroak 26-27, 300 pertsona
- **OBESITATE MORBIDOAREN KIRURGIAREN ETA GAIXOTASUN METABOLIKOEN ESPAINIAKO ERAKUNDEAREN KONGRESU NAZIONALA (SECO):** 2020 2021eko irailak 06-09, 250 pertsona

B) ERREPIKATU DIREN KONGRESUAK

- SUKALDEKO ELKARRIZKETAK*
- DFERIA
- CULINARY ACTION EKINTZAILEEN NAZIOARTEKO FOROA
- CDC, SORTZAILEEN KLUBA*
- SOL-SKYMAG*
- DONOSTIA GASTRONOMIKA*
- OSASUN DIGITALAREN KONGRESUA
- HOST

*Irabazitako hautagaitzetatik datoz

4.2.2. Sustapenerako ekintzak

1. Workshopetan eta aurkezpenetan parte hartzea

2021ean, ekintza komertzial hauetan hartu da parte:

Data	Izena
EKAINAK 17	Nazioarteko elkarten merkatuaren jardunaldia - Birtuala
AZAROAK 30 - ABENDUAK 2	IBTM World 2021 - BARTZELONA

A - Nazioarteko elkarten merkatuaren Jardunaldia - Birtuala

Izenburua: Spain brings you Food for Thought

Eguna: ekainak 17 osteguna, Taparen Nazioarteko Eguna delako.

Helburua: abegi ona transmititzea, lankidetzak, afektua, kongresuak lortzeko harremanak egitea.

30 minutuko hitzorduen agenda Ekitaldia sare sozialetan (LinkedIn eta Twitter) eta Boardroom aldizkarian sustatzea.

Jardunaldian 14 Convention Bureauak hartu zuten parte:

- Alacant, Bartzelona, Bilbo, Gijon, Girona, Madrid, Malaga, Salamanca, Donostia, Sevilla, Sitges, Tenerife, Valentzia eta Zaragoza.



Izandako hitzorduek:

1. ESTRO – European Society for Radiotherapy and Oncology
2. DIA – Drug Information Association
3. IASP – International Association of Science Parks – habla español y vive en Málaga
4. EUROVENT
5. SYTA - STUDENT AND YOUTH TRAVEL ASSOCIATION (TTOO)
6. AIACE-Deutschland – Association for former EU officials (azkenean ez du parte hartu eta bertan behera geratu da)

B - IBTM WORLD 2021 (Bartzelona)

Urtero bezala, Donostia Turismoa azokan izan da Basquetour standean, Bilborekin, Gasteizekin eta Arabako Errioxarekin batera.

Aurten, lau elkarte lagundu digute ekitaldira: bi agentzia hartzailak – Hagoos, Tenedor Tours –, hotel batek – Arima Hotela– eta bilera-egoitza batek – Kursaal. Establezimendu bazkideak funtsezko elementuak dira hiriaren sustapen turistikorako eta Donostiak negozioetarako turismogune gisa duen irudia indartuko dute, bere azpiegituren, zerbitzuen eta baliabideen kalitate eta bikaintasunagatik baita ezaguna.

2021eko edizioan eragina izan du COVIDak, azokaren tamaina murriztu behar izan baita eta oso jende gutxi bertaratu ahal izan baita. Murrizketak gorabehera, hitzorduen kalitatea handia izan da eta parte hartu duten enpresa guztiak erakutsi dute gogobetetasuna izandako bilerarekin.

Guztira, 32 hitzordu izan dira agentziekin eta bilerak, kongresuak eta konbentzioak antolatzen dituzten elkarteekin. Bilera horietako 7 nazionalak izan dira eta gainerakoak nazioarteko jatorri desberdinetakoak.

Azoka honen emaitza oso gogobetegarria izan da eta aurreikusita dago Donostian zazpi ekitaldi antolatzea 2022an zehar. Ekitaldi horietako bost bidaia sustagarriak ziren, eta bi, konbentzioak.

Azoka hau bilerak antolatzeko interesa duten agentziak eta enpresak lortzean oinarritzen da.



IBTM World 2021

Lankidetzaz bazkideekin

DATA	EKITALDIA	Tokia	Antolatzailea
03/26	Ekitaldiak, hirirako estrategia	Tabakalera & On-line	Donostia Turismoa
06/22	#SCBMeet ALEMANIA webinarra	On-line	Spain Convention Bureau
10/21	SCBMeet Belgium	On-line	Spain Convention Bureau
10/7	SCB bileren turismoari buruzko topaketa	Basque Culinary Center	Spain Convention Bureau & Donostia Turismoa
11/30-12/02	IBTM World	Bartzelona	Basquetour

Parte hartzeko gonbidapena:

WEBINARRAK

2021EKO EKAINAK 22KO #SCBMEET ALEMANIA WEBINARRA

Egungo Belgikako merkatuaren txostenaren aurkezpena eta Colja Damsi elkarriketa, Chief Executive Officer (CEO).

2021EKO URRIKO _SCBMEET BELGIUM WEBINARRA

Egungo Belgikako merkatuko txostenaren aurkezpena eta Matthias De Klercki aurkezpena, Managing Partner with Pitch Perfect, a Sales & Marketing office specialized in Travel & Hospitality.

EMANDAKO KONTAKTUAK

Kongresuen eta Ekitaldien sailak kongresuetako antolatzaileei eskaintzen dien aholkularitza-zerbitzuaren barruan, eskatzaileen beharretara ondoen egokitzen diren gure enpresa bazkideen zuzeneko kontaktuak eskaintzen ditugu.

2021ean egin diren kongresu hauek tokiko hornitzailearen baten kontaktua eskatu dute eta gure enpresa bazkideen zuzeneko kontaktua eman diegu.

EDVANCE BUSINESS SCHOOL JARDUNALDIA	30 pertsona
ATRAE JARDUNALDIA - EUSKADIKO TURISMO HARTZAILEKO AGENTZIEN ELKARTEA	50 pertsona
VII MEDICAL LASER CONGRESS TOP100	+ - 240 pertsona
KIRURGIA BARIATRIKOAREN SINPOSIOA	60 pertsona
EUROPAN 16 - FORUM OF CITIES AND JURIES	150 pertsona
IKERBASQUEREN URTEKO BATZARRA	180 pertsona
ETORKIZUNA ERAIKIZ 2021	800 pertsona
31st CONFERENCE OF THE ASSOCIATION OF EUROPEAN MIGRATION INSTITUTIONS – AEMI	41 pertsona
BILEREN TURISMOARI BURUZKO TOPAKETA ETA SPAIN CONVENTION BUREAUREN URTEKO BATZARRA	90 pertsona
OBESITATE MORBIDOAREN KIRURGIAREN ETA GAIXOTASUN METABOLIKOEN ESPAINIAKO ERAKUNDEAREN KONGRESU NAZIONALA (SECO)	250 pertsona

IKUSKARITZA-BISITALDIAK**CESOL – 1 pertsona 2021 ekainaren 15-16ean**

SOLDADURAKO ETA LOTURA TEKNOLOGIETAKO JARDUNALDI TEKNIKOAK - CESOL
2023ko martxoak 7-9, 200 pertsona . Ficoba

SOCE – 1 pertsona 2021eko irailaren 10ean

ODONTOLOGIA DIGITALAREN ETA TEKNOLOGIA BERRIEN ESPAINIAKO ELKARTEAREN KONGRESU NAZIONALA – SOCE
2023ko urtarrilak 26-28, 1.000 pertsona . Kursaal

SCB – 1 pertsona 2021eko irailaren 15ean

BILEREN TURISMOARI BURUZKO TOPAKETA ETA SPAIN CONVENTION BUREAUREN URTEKO BATZARRA
2021eko urriak 7-8, 90 pertsona . Basque Culinary Center

CILECT- 1 pertsona 2021eko abenduaren 20tik 23ra

2022ko urriak 10-14, 170 pertsona . Victoria Eugenia Antzokia

MERKATARITZAKO BILERAK

Aurten bizi izan dugun egoera epidemiologikoa dela eta, ez da merkataritzarako bisitaldirik antolatu. Alabaina, bilera bat izan da Gorka Aliasekin, **Matia Fundazioko** Komunikazio eta Marketin arduradunarekin, eta interesa adierazi zuen egiten dugun lana ezagutzeko eta fundazioak antolatzen dituen ekitaldietarako lankidetzan aritzeko aukerak aztertzeko.

4.2.3. Beste jarduera batzuk

ENBAXADORE Programa



Donostia Enbaxadore programaren asmoa da medikuntzaren, zientziaren eta/edo teknologiaren eta unibertsitatearen arloko profesionalak hautagaitza bat aurkeztu eta kongresu bat antolatzeko ardura hartzen dutenean egiten duten ahalegin pertsonala eta profesionala publikoki eta Gipuzkoako gizartearen aurrean aitortzea, eta zeregin hori eta bere eragina, bai ekonomian, bai ezagutza sortu eta gure ingurunean zabaltzean, nabarmentzea.

2012an sortutako "klub" prestigiotsu hori osatzen duten 70 profesional izateko zortea dugu. Klub horretan daude 450 ordezkari baino gehiagoko (hitzordu nazionalen kasuan) eta 200 parte-hartzaile baino gehiagoko (nazioarteko foruen kasuan) bilerak, ekitaldiak edo kongresuak antolatu dituzten profesionalak.

2020rako "enbaxadoreak" izendatzeko aurreikusita zegoen ekitaldia 2021ean egin da azkenean. Bederatzi profesional berri izendatu dira:



ANTONIO ALEGRE MILLÁN,
Hegaztien Zientziaren Espainiako
Elkartea LVI Hegaztien Sinposio
Zientifikoa 2019

ELENA MORENO, IHOBE
Change the Change – International
Conference on Climate Change 2019

ISABEL ÁLVAREZ LÓPEZ, Donostia
Unibertsitate Ospitalea, Onkologia
Medikoa

ANDER URRUTIKOETXEA RIBATE,
Onkologikoa
Bularreko Minbiziaren Espainiako Ikerketa
Taldearen Nazioarteko Sinposioa

GARIKOITZ ARISTEGUI,
Scoliosis - Posture Center
International Sosort Meeting 2021

IÑAKI GUTIÉRREZ, BIOEF
International Conference on Integrated
Care – ICIC 2019

GEMA VARONA,
Kriminologiaren Euskal Institutua
– IVAC/KREI

JOSÉ LUIS DE LA CUESTA,
I, Kriminologiaren Euskal Institutua
– IVAC/KREI
17th International Symposium of the
World Society of Victimology 2021

ALEJANDO MÜLLER,
EHUko Kimika Fakultatea
GEP-SLAP

Ekitaldien antolakuntza

Gure ekitaldiak

DATA	IZENA	Tokia	Parte-hartzaileak
Martxoak 26	Kongresuak, hirirako estrategia	Tabakalera & Birtuala	41 aurrez aurre 21 birtualki

Kongresuak, hirirako estrategia

EAurten, Kongresuen eta Ekitaldien Sailak MICE sektore osoari zuzendutako jardunaldi hibridoak antolatu ditu, eta bertan aztertu dute lehen mailako profil profesionalak hiria kokatzeko estrategia gisa kongresuen jarduerak duen garrantzia.

Kongresuen jarduera Donostia Turismoak sustatu duen ildo estrategikoetako bat da, ezagutza sortu eta partekatzen duelako eta tokiko ekonomia-jarduera kokatu, ikusarazi eta dinamizatu egiten duelako. Horregatik, jardunaldi hibridoa antolatu dute martxoaren 26an, 9:00etatik 12:00etara Tabakalerako Prisma aretoan,

“Kongresuak, hirirako estrategia” izenpean.

Jardunaldi hori topagunea izan da eta hiria kokatzeko estrategia gisa kongresuen jarduerak duen garrantzia aztertzeko lekua, baita gure hiriaren indarguneak eta erakartzeko gaitasunak nabarmentzeko ere.

Cristina Lagé turismo jasangarriko zinegotziak gure hirian bileren sektoreak egun duen egoera azaldu ahal izan du eta ekitaldian elkartu diren profesionalen artean izan dira: **Joaquín Fuentes**, Gipuzkoako Poliklinikako Haur eta Gazteen Psikiatria Zerbitzuko nagusia;

Ignacio Alcalde, Tecnaliako Senior Advisor City Solutions; **Elena Estomba**, Gipuzkoako Hotelen Elkarteko presidentea; **Rosa Valverde** Asistentzi Kalitaterako Euskal Batzordeko presidentea (AKEB); **Onofre Vicente** Euskadiko Biltzar eta Ekitaldi Antolatzailer Profesionalen Enpresa Elkarteko presidentea (OPCE Euskadi); **Concha Wert**, Club de Creativoseko gerentea eta **Oscar Cerezales** aditua, MCI Group-eko Global Executive Vice President Corporate Division.



Beste batzuekin antolatutako ekitaldiak

Gure ekitaldiak

DATA	IZENA	Tokia	Parte-hartzaileak
Urriak 7-8	Bileren Turismoari Buruzko Topaketa eta SCBren Urteko Batzarra	Basque Culinary Center	90

Bileren Turismoari Buruzko Topaketa eta Spain Convention Bureauren Urteko Batzarra

Kongresuen eta Ekitaldien Sailak **Spain Convention Bureaurekin** batera antolatu du Bileren Turismoari buruzko Topaketa eta Spain Convention Bureauren batzarra, urriak 7 eta 8an. Gainera, programaren barruan egin dute Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren (FEMP) barneko Kongresu Hirien Sarearen Urteko Batzarra.

Topaketa SCB osatzen duten 57

turismoguneri zuzenduta egon da. Eta gainera, topaketara etorri ahal izan dira enpresa bazkideak.

Basque Culinary Centerren egoitzan elkartu dira, eta SCBko presidente eta Kanaria Handiko Las Palmasko alkate **Augusto Hidalgok** inauguratu du topaketa, **Fernando Valdés** Turismoko Estatu idazkariarekin eta **Marisol Garmendia** Sustapen Ekonomikorako zinegotziarekin batera.

Hasierako hitzaldia Turespañako zuzendari nagusi **Miguel Sanzen** esku egon da.

Spain Convention Bureauren Batzarraren aurretik izan dira sektoreko adituen hitzaldi magistralak, eta ekitaldian parte hartu duten pertsonen lan-jardunaldiaz gain, gure lurraldea ezagutu eta gozatu ahal izateko programa osoa izan dute eskura.



Informazioaren, neurrien eta erreferentzien jarraipena eta sektorearen arrakastakasuak

Kongresuen eta Ekitaldien Sailak turismogune "alderagarrien" MICE jardueraren jarraipena egin du. Halaber, pandemiaren ondorioei aurre egiteko guri atxikita dauden erakundeek (ICCA, SCB, ECM, BasqueTour), foru profesionalak (OPC, MICE Foroa) eta turismoguneek planteatu dituzten proposamenak aztertu ditu.

MICE neurriak eta gomendioak

Kongresuen eta Ekitaldien Sailak bere webgunean sartu ditu sektoreari eragiten dioten neurri eta gomendio desberdinak. Informazioa Euskadiko Aldizkari Ofizialean argitaratu diren xedapenak jarraituz eguneratu da.


2021ean, Donostiak ekitaldi profesionalak hartzeko duen indarra eta kalitatea aitortu eta zabaldu dute hainbat aldizkari profesioaletan eta sare sozialetan.

Hosteltur: Espainia iparraldeak eutsi egin dio plan estrategikoen bitartez.



1/01/2021

Komunikabideetan, albisteetan, webguneetan eta sare sozialetan agertu diren MICErekin lotutako kontuak marketin eta komunikazio atalean bildu ditugu.



4.3. Aisialdiko turismoa

4.3.1. Produktu turistikoak

Produktu turistikoen sailaren helburu nagusia turismogunea finkatzeko eta hiri-turismoaren nazioarteko turismogune gisa kokatzeko produktu eta zerbitzu turistikoak diseinatzea eta garatzea da, Visit-Bizi 2017-2021 Gida Planak zehaztutako jarraibideak jarraituz, hala nola jasangarritasuna, nortasuna, deszentralizazioaren sustapena eta berezko baliabideak sortzea.

Helburu hori lortzeko hainbat ekintza egin dira:

Berezko produktu sorta
askotarikoa egitea.

Enpresa bazkideei
jarduerak sortzeko
aholkularitza
eskaintzea.

Enpresa bazkideen
jarduerak sustatzea eta
azokei eta workshopei
zabaltzea haien
informazio eta laguntza-
kanalen bitartez.

Gure eta enpresa
bazkideen produktu
turistikoak merkaturatzea
turistentzako arreta-
bulegoetan eta online
dendan. (**Gure baliabideak
sortzea**)




4.3.1.1

Gure produktuak


1. Txartel turistikoak

Txartel turistikoek bi linea daude eta bisitariari aukera ematen diote turismogunearen ezagutzan sakontzeko, erakundearen enpresa bazkideek (museoek, jatetxeek, komertzioek, etab.) eta garraio-lerro publikoek eskaintzen dituzten deskontu eta abantaila handiak lor baititzakete: **San Sebastián Card** (2 txartel) , Donostia ezagutzeko, eta **Basquecard** Donostia, Gipuzkoa eta Autonomia Erkidegoko hiriburuak ezagutzeko. Produktu hauen helburua da hona etortzen diren pertsonen turismoguneak eskaintzen dituen ahalik eta baliabide gehien ezagutzera garraio publikoaren bitartez.

2021ean saldu diren unitateak – Sailkapena hilabetearen eta txartel motaren arabera



BASQUECARD



SANSECARD



Jatorriak

GUZTIRA: 3.787

España	2.394
Francia	357
Alemania	175
* País desconocido	169
Estados Unidos	104
Suiza	89
Paíse Bajos	87
Gran Bretaña	76
Bélgica	68
Italia	38
Argentina	29
Irlanda	29
Austria	26
Portugal	17
Honduras	14
México	11
Uruguay	9
Suecia	8
Perú	8
Venezuela	8
Afghanistan	6
Andorra	6
República Checa	5
Japón	4
Luxemburgo	4
Polonia	3
Finlandia	3
Colombia	3
Singapur	3
Brasil	3
Chile	2
Grecia	2
Dinamarca	2
Eslovenia	2
Emiratos Árabes	2
Rumanía	2
Costa Rica	2
Taiwan	2
Canadá	1
Ecuador	1
Rusia	1
Serbia	1
Georgia del Sur y Islas Sandwich del sur	1
Arabia Saudí	1
Corea del Sur	1
Croacia	1
Eritrea	1
Estonia	1
Guam	1
Guinea-Bissau	1
Letonia	1
Nicaragua	1
Turquía	1




*Jatorria ezezaguna da jatorri-herrialdea zehaztu gabe saldu delako.

2. Garraio turistikoa


Pandemiaren ondorioz, garraio turistikoa abuztuan jarri zen martxan. Bi garraio turistiko mota daude (trena eta autobusa – geldialdiak egiten dituzte hirian zehar), eta bisitariei hiriaz

gozatzeko, eta ibilbidean zehar historiako garai desberdinak eta haien inguruko berezitasunak ezagutzeko aukera ematen diete.

Jatorri orokorrak



Jatorri nazionalak





*Iturria: webguneko salmentetan eta Donostia Turismoaren Bulegoetan jasotako datuak.

Biarritz – Donostia autobus zuzena:**TIKET SALMENTA**

Biarritzeko turismo bulegoa	2.768	%57
Donostiako turismo bulegoa	513	%11
sansebastianaturismoa.eus webgunea	1.580	%32
GUZTIRA	4.861	

Okupazio maila %35eko izan da

GEHIEN ERABIL DIREN ZERBITZUAK**ERABILTZAILE GEHIEN EGON DIREN EGUNAK**

4.3.1.2

Bazkideen produktuak


Urtearen lehenengo seihilekoan edukieraren eta mugikortasunaren murrizketak izan dira, itxiera perimetralekin, eta horrek jardueren ohiko eskaintza mugatu du. Donostia Turismoak askotariko jarduera-eskaintza du gurera etortzen diren pertsonentzat. Eskaintza tokiko enpresa bazkideekin egiten da, eta batez ere city breakaren eta gastronomiaren sektoreetara bideratuta dagoen gida osoa osatzen dugu.

CITY BREAK	
BISITA GIDATUAK ETA CITY TOURRAK	
Ezinbesteko Donostia (goiz eta arratsalde) eta irteera pribatua	SSGUIDES
Jauregitik jauregi eta irteera pribatua	SSGUIDES
Parke lasaiak eta irteera pribatua	SSGUIDES
Ezagutu basoa eta irteera pribatua	SSGUIDES
Donostiako onena eta irteera pribatua	SSGUIDES
Autobus eta tren turistikoa	DT
eBIKE TOUR (goiz eta arratsalde, ingeles edo gaztelaniaz egiteko aukera)	GO LOCAL
eBIKE 3 hondartzak (goiz eta arratsalde)	GO LOCAL
Easo bizikleta tourra (goiz eta arratsalde)	BICIRENT
Portura eta arrantzaleen barkura-kofradiara bisita	KOFRADIA
Baxurako arrainaren lonjara-kofradiara bisita	KOFRADIA
GASTRONOMIKOAK	
4 pintxo tour gaztelaniaz + ingelesez (goiz eta arratsalde)	LOCAL EXPERTS TOURS
Errioxako upategiak ingelesez/gaztelaniaz	LOCAL EXPERTS TOURS
Ilunabarra esperientzia gastronomikoa (garraioarekin eta gabe)	SUNSETBASTIAN
Ilunabarra kantauri itsasoko esperientzia (garraioarekin eta gabe)	SUNSETBASTIAN
Ilunabarra itsaskien esperientzia (garraioarekin eta gabe)	SUNSETBASTIAN
TXANGOAK	
Frantziako kostaldeko tourra talde txikiarentzat gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Frantziako kostaldeko tourra talde handientzat gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Bilbao Guggenheim egun ½ gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Bilbao Gaztelugatxe gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Txakolinaren bodega gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Gipuzkoako kosta egun ½ gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
3 Tenpluen tourra gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Hondarribia/Pasaia tourra talde txikiarentzat gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Hondarribia/Pasaia tourra talde handientzat gaztelaniaz/ingelesez	LOCAL EXPERTS
Donostia-Biarritz autobus azkarra	
ITSAS PASEOAK ETA KIROLAK	
Irlako txalupa - linea urdina	MOTORAS
Donostiatiako zeharkaldia katamaranean	CATAMARÁN
Oria ibaiaren jaitsiera kayakean	BEGI BISTAN
Kayakean uUrumeatik + Sagardotegia	SAGARDOA ROUTE
Donostia-Pasaia Lucretia belaontzi klasikoan	OSTARTE
Kantauri 2 Badiak ibilbidea (goiz eta arratsalde)	BRAI KANTAURI
Kantauri 3 Badiak ibilbidea (goiz eta arratsalde)	BRAI KANTAURI
EUSKAL KULTURA	
Pilota Galarreta	GALARRETA
Bazkaria + sagardoetxera bisita	SAGARDOETXEA
Petritegi sagardotegian bazkaria + bisita	PETRITEGI
Bazkaria + sagardotegian afaria + garraioa	SAGARDOAROUTE
Euskal baserria + sagardo bodega	SAGARDOAROUTE
XVI. Mendeko dolarea	SAGARDOAROUTE
Talai berri bodegara bisita	TALAI BERRI
MUSEOAK, AISIALDIA ETA IKUSKIZUNAK	
Kasinoa + kasino premium	LUCKIA CASINO
Talaso zirkuitoa 2 ordu	LA PERLA
Talaso zirkuitoa 3 ordu	LA PERLA
Talaso zirkuitoa eta/ edo gimnasioa 5 ordu	LA PERLA
Bazkaria + afaria + talasoa 2 ordu	LA PERLA
Eureka Museoa	
Eureka Museoa + Planetarioa	
Albaola Museoa	
Aquariumera sarrera	
San telmora sarrera	
Chillida Lekura sarrera	
Sagardoetxea sagardoaren museoa	
Arrantzale egun batez	KOFRADÍA



Unitateen salmenten sailkapena:


Bisita gidatuak eta city tourrak: % 40,9
 Museoak, aisialdia eta ikuskizunak: % 30,5
 Itsas paseoak eta kirolak: % 21
 Txangoak: % 4
 Euskal kultura: % 2,7
 Gastronomia: % 1



*Ez dira Biarritzeko autobusaren datuak ageri, bazkideen produktuen salmenten ehunekoa indargabetzen duelako. Saldutako unitateak: 4.855 txartel.

Jatorriak

GUZTIRA: 5.132



4.3.1.3

Produktu Turistikoaren Komertzializazioa


Turismogunearen eskaintza bezeroari hurbiltzeko jardura guztiak zuzenean saltzen dira bai bulegoetan, bai Donostia Turismoaren online dendan.

Enpresa bazkideen produktuak (Ticketing): % 58,8

Txartel turistikoak: % 22,3

Garraio turistikoa: % 18

Komisioak: % 0,9



**Ez dira Biarritzeko autobusaren datuak ageri, bazkideen produktuaren salmenten ehunekoa indargabetzen duelako.*

4.3.2.

Bisitarien arreta

2021ean, bulegoetan artatutako pertsonen kopurua % 82,22 igo da da 2020arekin alderatuta, baina urrun dago 2019ko datuetatik (- % 68,97). 2020an bulegoa itxi behar izan zen ia hiru hilabetez, 2021ean aldiz bulegoa zabalik egon da urte osoan zehar, eta ordutegia egokitu egin da pandemia dela eta. Kutsatzen olatuen eragina igarri da, batez ere urteko lehenengo lauhilekoan eta abenduan.


Donostiako Turismo Bulegoa

Bisitariak guztira	2019	2020	2021	
Urtarrila	4.686	4.738	431	-90,90%
Otsaila	6.079	6.702	234	-96,51%
Martxoa	10.289	1.881	685	-63,58%
Apirila	16.197	0	876	
Maiatza	17.759	0	1345	
Ekaina	23.614	1.656	5.665	242,09%
Urtarrila	39.797	8.451	14.319	69,44%
Abuztua	50.715	9.899	20.054	102,59%
Iraila	35.741	3.772	12.624	234,68%
Urria	16.170	2.090	9.115	336,12%
Azaroa	5.845	226	4.010	1674,34%
Abendua	6.897	395	3.183	705,82%
Guztira	233.789	39.810	72.541	82,22%

* Iturria: ITOURBASK

Datu horiek generoaren arabera bereizten baditugu, ikusiko dugu azken urteetako joera mantendu egin dela; gehiago dira artatutako emakumeak gizonak baino.

Turismo Bulegoko bisitariak, generoaren arabera



* Iturria: ITOURBASK

4.3.3. Azokak eta workshopak

Zazpi azokatan eta aisialdiko nazioarteko eta nazio mailako zortzi workshopetan hartu dugu parte, Donostia hiriturismorako, turismo gastronomikorako eta turismo premiumerako nazioarteko turismogune gisa kokatzeko. Osasun-egoera dela eta, batzuk online izan dira.

Donostia Turismoak sustapen-lan handia egiten du atzerrian batez ere; izan ere, turismoaren sektoreko azoka profesional eta orokor garrantzitsuetara joaten da Basquetourrekin, Turopañarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.

Azoka hauetan hartu dugu parte:

Azoka nazionalak	Nazioarteko azokak
CEAV bilera (online)	ITB NOW (online)
FITUR (Madril)	WTM (London)
EXPOVACACIONES (Bilbo)	Online Travel Mart-Japoniako merkatua (online)
INTUR (Valladolid)	

Japoniako JATA Online Travel Martek izan duen arrakasta nabarmendu behar da, merkatu horrek Donostian duen interesa dela eta.

Workshop hauetan hartu dugu parte:

Workshop nazionalak	Nazioarteko workshopak
Viajes Mantur-MARTXOA	Wavestone-AZAROA
El viaje conmigo-MARTXOA	Belpmoos Reisen-ABENDUA
RTA Spain (RTA Group)-IRAILA	Exclusive&Private-ABENDUA
	CASI BORDEAUX-ABENDUA
	SIA Baltic-ABENDUA

4.3.4.

Fam tripak edo agenteen bidaiak

Osasun-egoera dela eta, familiarizaziorako bidaiak atzeratu egin dira eta bilerak online egitea lehenetsi da. 2021ean, Donostia Turismoak

familiarizaziorako bidaia batean hartu du parte, eta erakundearentzako arlo estrategikoetan oinarritu da, hala nola: City Break, Gastronomía eta Premium.

	Tipologia	Agente kopurua	Jatorriko herrialdea	Hilabetea	Antolatzailea
MY OWN TRAVEL	PREMIUM	2	ALEMANIA	IRAILA	DSS TURISMO



4.4. Turismogunearen kudeaketa

Donostia Turismoak turismogunearen kudeaketaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta turismoaren sektoreko eragile desberdinekin egiten du lan turismogune jasangarriagoa, irisgarriagoa, arduratsuagoa eta berritzaileagoa lortzeko.

Hori lortzeko hainbat arlo eta norabidetan egin behar da lan:

Turismoguneko enpresa turistikoekin lan egin eta lagundu egin behar zaie, Donostia Turismoko Enpresa Bazkideen bitartez batez ere; prestakuntzak eskaini behar dira; coworking bilerak egin (Taldea Egin Jardunaldiak) eta laguntza eman eta lidergo-programak eskaini, hala nola SICTED programa, lehiakortasunerako; SMART BUSSINES, digitalizaziorako; KODE ETIKOA, ardurarako, edo ZERO PLASTIK, ingurumen-jasangarritasunerako.

Beste administrazio publiko batzuekin lan egin behar da, bai udalarekin, bai probintziako eta erkidegoko beste erakundeekin, planteatutako proiektuetan koordinazio eta sinergia handiagoa lortzeko, hau da, gobernantza erreala eta erabilgarria izateko.

Turismoguneko hobekuntza fisikoan eta zerbitzuetan lan egin behar da, esaterako, turismorako seinaleen mantentze-lanetan eta eguneraketan, turismogunearen eta bertako enpresa turistikoaren irisgarritasunaren ezaugarrien balioespenean, etab.

2020a suntsitzaila izan zen turismoarentzat Covid-19aren pandemiaren ondorioz, eta 2021a hobe izan den arren, amaieran ez da usten zen bezain ona izan. Covid-19a dela eta, gorabehera asko izan ditu eta ezin izan dira hainbat proiektu garatu.

4.4.1. Jardunak sektorearekin

1. Jardunaldiak eta tailerrak

2020an harremanak, prestakuntzak eta jardunaldiak online egin behar izan ziren osasun larrialdia zela eta. 2021ean, modalitate mistoaren alde egin da, hau da, jardunaldiek oso edukiera txikia izan dute, unean indarrean zegoen araudia errespetatuz, baina streaming bidez eman dira.

2021eko apirilaren 14an egin zen jardunaldia Maria Cristina Hotelean.

Donostia Turismoak turismoan esku hartzen duten erakunde publiko guztietako adituen taldea aurkeztu ahal izan zuen, eta bertaratuei une zail horietan erakunde publikoak enpresentzako eskaintzen ari ziren laguntza eta estrategia guztiak ezagutu ahal izan zituzten.

Hala, jardunaldian hauek aritu ziren hizlari, ordena honetan:

- Eider Calderón, Donostia Turismoko zuzendariordea.
- Iker Fernández, Kreenti enpresatik, dinamizatzaile aritu zen.
- Cristina Lagé, Donostiako Udaleko Turismo Jasangarriko zinegotzia.
- Miguel Sanz, Turopañako zuzendari nagusia.
- Daniel Solana, Basquetourreko zuzendari nagusia – Euskadiko Turismoaren Sustapenerako Agentzia
- Jabier Larrañaga, Ekonomia, Turismo eta Lanada Eremuko diputatua.
- Isabel Aguirrezabala, Donostia Turismoko zuzendaria.

Gainera, enpresa turistikoei "Hondalea" aurkeztu zitzaien, Cristina Iglesias nazioarteko eskultoreak Santa Klara irlan egin duen eskultura ederra, eta 2021eko udan jarri zen martxan.

Beste enpresa batzuetako 28 pertsona ere joan ziren aurrez aurre eta 51k online jarraitu zuten. Interesdunei nola egin nahi zuten aukeratzeko aukera eman zitzaien, baina aurrez aurreko aurkezpenera enpresa bakoitzeko pertsona bakarra joan zitekeen soilik eta edukiera bete arte.

Jardunaldiak 8,07 puntuko balorazioa jaso zuen 10etik.



*Donostia Turismoak enpresa bazkideekin egindako jardunaldia.
Hotel María Cristina hotela*

Formazioei dagokienez, formatu birtualean ere egin behar izan dira. Prestakuntzen gaiak berariaz diseinatu dira, egoera pandemikoa dela-eta enpresek dituzten beharrak kontuan hartuta.

Prestakuntzen gaiak honako hauek izan dira:

- Marketin-estrategiaren errepasoa, merkatua indar handiagoarekin berraktibatzeke.

- Marketin Digitalerako Estrategien azterketa, turismoguneko enpresen digitalizazioa sustatzeko.

- "Ticketbai" fakturak igortzeko sistema berriaren aurkezpena. Programa hau derrigorrekota izango da 2022tik aurrera.

- Egun enpresen eskura dauden Ziurtagiri Elektronikoko nagusien aurkezpena. Ezinbestekoak dira administrazio publikoarekin kudeaketak

egiteko eta harekin harremanetan egoteko.

- Administrazio Elektronikokoaren deskribapena eta dituen abantailak eta desabantailak.

Prestakuntza honek emaitza hauek izan zituen:

Jardunaldia	Tokia	Data	Parte hartzaileak		Balorazioa
			Enpresak	Pertsonak	
Marketin estrategia	Online (Zoom)	2021/02/25	38	35 E /13 G	8,28
Marketin digitalaren estrategia	Online (Zoom)	2021/03/17	32	33 E /8 G	8,90
Taldea Egin jardunaldia	Hotel M. Cristina hotela/ Online	2021/04/14	63	65 E /29 G	8,57
TicketBAI	Online (Zoom)	2021/05/05	90	50 E /22 G	8,93
Ziurtagiri Elektronikokoak	Online (Zoom)	2021/05/25	14	25 E /5 G	7,57
Administrazio elektronikoa	Online (Zoom)	2021/06/16	12	13 E /3 G	8,40
PARTE HARTZAILEAK GUZTIRA			250	221 M / 80 H	

2. Enpresa turistikoen lehiakortasuna hobetzeko ekintzak



Turismogunearen Jardunbide Egokien programa (SICTED)

Turismogunearen Jardunbide Egokien programa (SICTED) erabat atzeratu behar izan da berriro ere 2021ean.

Basquetourrek hartu zuen erabakia eta arrazoia izan da baliabide guztiak enpresentzako zuzeneko laguntzetara bideratu direla. Enpresa turistikoen biziraupena lehenetsi da.

Nolanahi ere, enpresei aukera eman zaie baten batek aurtengo programan aktibo egon nahi ez bazuen eta ez du inork eskatu.



Smart Business

Gauza bera gertatu da Smart Bussines programarekin, 2022ra atzeratu behar izan da, SICTEDen arrazoi berdinengatik.

Jardunbide Egoki aurreratua "Covid-19aren prestakuntza, Turismogune segurua"



ASICTED plataformaren bitartez, Basquetourrek aukera eman die enpresa turistikoei 2021eko udan Turismo arloko Estatuko Idazkariaren "Turismogune Segurua" ziurtagiri-zigilua lortzeko. Une erabakigarria izan da; izan ere, ekainetik aurrera turistak geografia osotik mugitzen hasi dira, nazionalak batez ere, baina ezjakintasunez eta zuhurtziaz.

Zigilu horrek egiaztatzen du enpresek SARS_COVID-19 koronabirusarekin kutsatzeko arriskua murrizteko SICTEDen Jardunbide Egoki Aurreratua behar bezala egiaztatu direla berresteko auditoretza gainditu dutela.

Donostia izan da buru eta aurkeztutako 17 enpresei lagundu die ziurtagiria lortzen. Guztira, 3 gida, kategoria desberdinetako 8 ostatu, 3 baliabide turistikoa, zerbitzu turistikoen 2 enpresa eta turismo bulegoa izan dira.

Zehazki, enpresa hauek:

- AQUARIUMA
- EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
- HOTEL AVENIDA HOTELA
- HOTEL DE LONDRES Y DE INGLATERRA HOTELA
- HOTEL MARIA CRISTINA HOTELA
- HOTEL MONTE IGUELDO HOTELA
- JUST FOLLOW ME
- LOURDES GORIÑO ARRIETA
- MONTE IGELDO JOLAS-PARKEA
- OLARAIN
- AB DOMINI PENSIOA
- ALTAIR PENSIOA
- KURSAAL PENSIOA
- SAN SEBASTIAN GUIDES
- SAN SEBASTIAN TOURIST INFO
- TENEDOR TOURS
- VIRGINIA GARCÍA MARCELLÁN

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa



Basquetour, Turismoaren Euskal Agentziak 2020an jarri zuen martxan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren programa enpresa turistikoa.

Iaz 13 enpresak hartu zuten parte, eta 2021ean, prestakuntza desberdinak egiten jarraitu dute batez ere.

Gainera, 2021ean, enpresa turistikoen programa honetan parte hartzeko bigarren deialdia zabaldu da eta Donostia Turismoaren eskutik, "Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren" ziurtagiria jaso dute aurkeztutako 14 enpresek. Enpresek haien jardueren eta prozesuen inguruko memoria egin dute, Turismo Arduratsua osatzen duten 8 ardatzen inguruan:

- **Turistekin lotuta, elkar ulertzea eta elkar errespetatzea**
- **Berdintasuna, inklusioa eta dibertsitatearen tolerantzia**
- **Jasangarritasuna**
- **Tradizioa eta tokiko kultura sustatzea**
- **Gizateriaren kultur ondarea zaintzea**
- **Bikaintasuna eta profesionaltasuna**
- **Pertsonen eskubideekiko errespetua**
- **Sektoreko langileei eta enpresei tratu ona ematea**

Deialdi honetan enpresa hauek hartu dute parte:

- AQUARIUM
- CASINO KURSAAL
- EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
- HOTEL M. CRISTINA
- HOTEL AMARA PLAZA
- NEKATUR
- OLARAIN
- MONTE IGUELDO JOLAS-PARKEA
- PENSIÓN AB DOMINI
- PENSIÓN KURSAAL
- DONOSTIA TURISMOA
- SAN SEBASTIÁN GUIDES
- FEEL FREE RENTALS

3. Enpresa bazkideentzako informazioa

2021ean, enpresa bazkideei hainbat gairen inguruan aholkatzeko eta informatzeko zeregina aurrera eramaten jarraitu dugu.

Eta enpresa turistikoaren zerbitzu integrala hobetzeko, 2021ean orain arte erabiltzen zen enpresa bazkideen datu-basea CRM batekin (Bezeroen Harremanak

Kudeatzeko Sistema – Customer Relationship Management) ordezkatu da, Donostia Turismoko enpresa bazkideen datuak, eskaerak eta programetako parte-hartzeak hobeto kudeatzeko.

4.4.2. Jasangarritasun Turistikoa

Donostia Turismoak Donostiako Udaleko Ingurumen Sailak antolatu dituen ZERO PLASTIK programak babestu ditu eta haietan parte du, erabilera bakarreko plastikoen kontsumoa murrizteko eta hondakinen kudeaketa hobetzeko, besteak beste.

Zero Plastik Hotelak programan lankidetzan aritu gara. Kanpaina 25 ohe baino gehiagoko ostatu turistikoari dago zuzenduta, eta hondakinen egungo kudeaketari eta beste arlo jasangarri

batzuei buruzko doako diagnostikoa egiteaz gain, hobekuntzak errealak eta bideragarriak egiteko ekintza-plana duen txostena aurkeztu zaie.

Halaber, apartamentu turistikoari zuzendutako antzeko programa batean ere aritu da lankidetzan eta orain erabilera turistikorako etxebizitzentzako beste programa bat lantzen ari gara, 2022an martxan jartzeko.

4.4.2.1. Irisgarritasunaren aldeko jarduketak (aniztasun funtzionala)

2021ean, hainbat hobekuntza egin dira webgunean <https://accessibility.sansebastianturismoa.eus/es/>. Atal horretan jasotzen da turismoaren webguneko zerbitzuen eta baliabide turistikoaren irisgarritasunerako ezaugarrien informazio xehea.

Fitxetan zerbitzuen irisgarritasun-ezaugarriak modu intuitiboagoan irudikatzen diren argazkiak txertatu dira.

Gainera, fitxa bakoitzean irisgarritasuneko webgunea turismoko webgune orokorrarekin lotu da, irisgarritasunaren ataritik sartzen den erabiltzaile batek baliabide horrek eskaintzen duen informazio turistiko guztia ezagutu ahal izateko, edo, alderantziz, webgune nagusitik baliabide zehatzera sartzen denak irisgarritasunaren ezaugarriak ezagutzeko esteka izan dezan.

Donostia Turismoaren arreta-bulegoko irisgarritasunaren ezaugarri guztiak dituen fitxa bat ere erantsi dugu.

Eta, azkenik, Accesibleforalli eskatu diogu irisgarritasunaren 24 fitxa berri egiteko, halakorik ez zuten turismo-kateko bi kate-begirentzat: ostatuentzat eta ostalaritzarentzat. Aurreikusita dago fitxa horiek 2022an argitaratzea webgunean, egindako bisiten informazio osoa eta irudiak bildu ostean.

Guztira, kategoria guztietako 12 hotel, 2 pentsio, 2 aterpetxe eta 1 sagardotegi izan dira.

Halaber, behin betiko martxan jarri da semaforoaren soinua eta autobusetako audioa aktibatzeke aginteak mailegatzeko zerbitzua. Ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat dago pentsatuta bereziki.

4.4.2.2. Azpiegiturak hobetzeko jarduketak: mugikortasuna, irisgarritasuna eta seinaleztapena

Donostia Turismo barnean txosten bat egin dugu hirian turismoaren mugikortasuna hobetzeko beharrekin eta Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailari aurkeztu diogu. Bertan, oinarritzko kontzeptuak finkatu eta argitzeko beharraz hitz egiten da, hala nola ibilgailu pribatuak hirira nondik sartu behar diren gomendatu behar den, non aparkatu, TAO sistemaren komunikazioko hobekuntzak, mugikortasun urriko pertsonentzako parkingak, etab.

Donostia erdialdean egiten ari diren metroko lanak, trafiko-mozketak, erdiguneko trafikoa berrantolatu eta mugatzeko plana, eta Covid-19ak eragindako turistaren mugimendu txikiagoa direla eta, ezin izan dira txostenean ageri diren puntu asko argitu.

Bestalde, "kokaleku" mapak eta hiriko hainbat puntu estrategikotan dauden oinezko turistentzako seinaleak eguneratu dira, informazioa eguneratzeko eta batez ere "Hondalea" eskultura-baliabide berria gehitzeko.

Gainera, oinezko turistentzako seinaleen sistema berritu da; izan ere, urtero lez, eguraldi txarrak hondatu egiten ditu.

2021eko Gabonetako kanpainarako, Illunbetik erdialdera doan autobus-zerbitzu arrakastatsuen esperientzia errepikatu da, 20 minutuko maiztasuna izan du zerbitzuak eta, hala, Illunbe disuasiorako aparkalekua bihurtu da.

Ekimena 2021eko azaroaren 20tik 2022ko urtarrilaren 8ra egon da martxan eta Donostia Shopek, Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailak, Garapen Sailak eta Donostia Turismok hartu du parte.

Hobekuntza gisa, aurrean galdeketa egin zaie autobus-zerbitzuaren erabiltzaileei.

Jasotako emaitzekin ekimenak oso balorazio positiboa izan duela esan daiteke.

ILUNBEKO DISUASIO-APARKALEKUAREN ERABILTZAILE KOPURUA:

Zerbitzua erabili duten pertsonen kopurua: **2.711**

Azaroa: 22 pertsona. Eguneko 11 erabiltzaile batez beste.

Abendua: 2.082 pertsona. Eguneko 67 erabiltzaile batez beste.

Urtarrila: 607 pertsona, eguneko 76 erabiltzaile batez beste

Aparkalekua eta autobusa gehien erabili zen eguna abenduaren 29a izan zen, 319 erabiltzaileekin.

Gutxien erabili zen eguna azaroaren 29a, 3rekin.

4.4.2.3. Behatokia

DSS Turismoak azterlan espezifikoak egin ditu eta hainbat informazio-iturri aztertu ditu erakundeko enpresa bazkideekin partekatzeko.


Hala, eta datu estatistikoak lortzeko eta horiek behar bezala interpretatzeko urte zaila izan den arren, enpresa bazkideekin partekatu dira titullarrik, albisterik, daturik eta txostenik esanguratsuenak eta enpresa bazkideentzako sarbide mugatua duen webgunearen atalean argitaratu dira; <https://members.sansebastianturismoa.eus/>

Turismoaren Behatokian enpresa bazkideekin partekatzen diren informazio arloak dira; emandako gauak, eskaintzaren bilakaera, egitura, okupazioa eta ostatuaren prezioa, komunikabideetan izandako presentzia eta nazioarteko rankingak, bisitariaren profila eta gogobetetzea, webgunearen/sare sozialen datuak eta entzumen aktiboa. Datuok hiru aldi hauetan daude banatuta: urtarrila-maiatza; ekaina-iraila eta urria-abendua.

Fenomeno turistikoaren erradiografia hobe eta osoagoa izateko, Donostiako ostatuaren egungo eta etorkizuneko eskaintza hobeto monitorizatzeko sistema ezartzen ari gara.

Hiriko ostatuaren gaitasunaren inguruko azterketa egiten hasi gara eta Deustuko Unibertsitateri eskatu diogu hiriak izan ditzakeen oheen kargaren atalasea eza-gutzeko azterketa egitea. 2021 amaierarako espero zen txostena, baina atzerape-na izan du.

Bitartean, Lehendakaritzarekin eta Donostiako Udaleko Presidentetzarekin harremanetan izan gara irekitako ostatuak eta ostatu berriak irekitzeko eskaerak monitorizatu ahal izateko.





5. Donostia turismoaren antolaketa eta administrazioa

Helburua erakundearen giza baliabideen eta materialen kudeaketarekin, finantzen kudeaketarekin eta erakundearen etengabeko hobekuntzekin zerikusia duten prozesuak diseinatu, planifikatu, garatu eta jarraipena egitea da.

HELBURU nagusiak:

- Erakundearen arlo guztien helburuak garatu eta lortzeko eragina duten zeharkako alderdi guztiek ondo funtzionatzen dutela bermatzea, bai eta lan-prozesu desberdinetarako hobekuntzak proposatu eta txertatzea ere.
- Baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak eta materialak) erakundearen beharretara egokitzea.
- Langileen gogobetetasuna hobetzea.
- Legezko betekizuna bermatzea eta zaintzea

5.1. Balantze ekonomikoa

2021eko ekitaldiaren laburpena

Langileen gastuak	-1.767.451,73
Ohiko gastuak	-1.460.850,44
Hornikuntza	-52.145,84
	-3.280.448,01-
Aldundia	80.000,00
Eusko Jaurlaritza	169.408,24
Geure baliabideak	135.522,99
Bazkideen ekarpenak	80.459,85
Beste diru-sarrera batzuk (komisioak, ekarpenak, etab...)	43.057,85
Ekitaldiaren amaieran transferitutako kapitalaren diru-laguntzak	-54.900,00
Udala kapital-ekarpena gastu arrunterako	2.815.000,00
Udala inbertsioetarako kapital diru-laguntzak	50.000,00
	3.318.548,93


5.2. Donostia turismoko langileak

Hurrengo ataletan erakundea osatzen duten pertsonen estatistika-datuak aurkeztuko ditugu.


Kategoriak, lanpostuak eta euskara maila

2021eko lanpostuak	Emakumeak	Gizonak	EUSKARA MAILA			
			B2	C1	C2	Ziurtagiririk gabe
Zuzendaritza	1	0		1		
Zuzendariordetza	1	0		1		
Arduradunak	5	2		5	1	1
Teknikariak	7	0		5	1	1
Koordinatzaileak	1	0		1		
Administrariak	4	1	1	4		
Agenteak	6	2	2	5	1	
GUZTIRA	25	5	3	22	3	2

Postuen kategoriak 2021



Euskera maila postuaren arabera




Lan harreman motak

Kontrataturako pertsonen kopurua		2021		
		Emakumeak	Gizonak	Kontrataturako pertsonak guztira
URT	Mugagabea	15	3	34
	Aldi baterakoa	13	3	
OTS	Mugagabea	15	3	34
	Aldi baterakoa	13	3	
MAR	Mugagabea	15	3	34
	Aldi baterakoa	13	3	
API	Mugagabea	15	3	31
	Aldi baterakoa	11	2	
MAI	Mugagabea	15	3	31
	Aldi baterakoa	11	2	
EKA	Mugagabea	15	3	33
	Aldi baterakoa	11	4	
UZT	Mugagabea	15	3	36
	Aldi baterakoa	13	5	
ABU	Mugagabea	15	3	37
	Aldi baterakoa	14	5	
IRA	Mugagabea	15	3	35
	Aldi baterakoa	13	4	
URR	Mugagabea	15	3	33
	Aldi baterakoa	12	3	
AZA	Mugagabea	15	3	33
	Aldi baterakoa	12	3	
ABE	Mugagabea	15	3	35
	Aldi baterakoa	13	4	

Kontrataturako pertsonak, guztira

■ 2021 Gizonak ■ 2021 Kontrataturako pertsonak, guztira
■ 2021 Emakumeak



Absentismoa

ABSENTISMOA	2021	ABSENTISMOA	2021	ABSENTISMOA	2021
*Gaixotasunagatiko aldi baterako ezintasuna dela eta, bajaran egondako egunen arabera kalkulatua	%9,03	*COVIDagatik aldi baterako ezintasuna dela eta, bajaran egondako egunen arabera kalkulatua	%0,78	Gaixotasunagatik + COVIDagatik aldi baterako ezintasuna dela eta, bajaran egondako egunen arabera kalkulatua	%9,82

Donostia turismoko langileek egindako prestakuntza ekintzak

ERAGINKORTASUNA HOBETU: Norberaren antolaketaarako ezinbesteko ohiturak

TALDEEN KOORDINAZIOA: "Lantaldea nola zuzendu: Tarteko arduraduna bideratzaile gisa

ZUZENDARITZA TALDEAREN GARAPENA

JENDAURREAN HITZ EGIN ETA GOZATU

BERDINTASUN-BATZORDEA SORTZEA

KOMUNIKAZIO INKLUSIBOA

KOMUNIKAZIO INKLUSIBOA DONOSTIA TURISMOAN

NOMINEN, SAREKO SISTEMAREN ETA SILTRAREN PRESTAKUNTZA

EUSKARA: Mezuak eta oharrak sortzeko irizpideak eta gakoak

ZIURTAGIRI ELEKTRONIKOAK

NORBERAREN ETA ERAKUNDEAREN NEUROZORIENTASUNA

TICKET BAI

BALIABIDEETARA BISITAK:

HOTELAK:

Hotel Boutique Bidaia hotela

Hotel M. Cristina hotela

ESKUALDEAK:

Goierrri (Hitzaldia)

Bidasoa

Urola Kosta

Tolosaldea

Debagoiena

Donostialdea

Oarsoaldea

BESTEAK:


San Telmo Museoa (erakusketa desberdinak)

Brai Kantauri

Garraio Publikoa- HUB GT

Galarreta

Lanarekiko barneko gogobetetasunaren emaitzak, 2021



Covid-19aren ondoriozko antolaketa neurriak

2021ean, eskumena duten erakundeek COVID-19ari aurre egiteko eta langileak zein bezeroak babesteko ezarri dituzten neurriak mantentzen eta egokitzen jarraitu du Donostia Turismoak.



5.3. Euskara plana

2021ean zehar, Donostia Turismoak euskararen normalizazio-planarekin jarraitu du eta bai erakundearen kanpora, bai barrura begirako ekintzak egin ditu.

Esan dezakegu euskara-plana berrikusi eta 2021-2022 aldirako eguneratu dela. Erakundearen barruan zein kanpoan euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko ekintzak egin dira, baita turismogune gisa sustatzeko ere.

Enpresa barruan, Erreferentzia Marko Estandarraren ebaluazioa egin da, zerbitzuan euskara erabiltzeko egiten ditugun ekintzak baloratzeko, bai barneko, bai kanpo komunikazioari dagokionez.

Kanpora begira, sormen-kanpaina parte-hartzailea jarri dugu martxan donostiar guztientzat, eta bisitariei erakusteko eduki polita, hunkigarria eta inspiratzailea sortu dugu elkarlanean, gure erroak eta gure kultura/hizkuntza beste turismoguneekiko bereizgarri gisa sustatzeko.

Kanpaina Udaleko Euskara Zerbitzuarekin batera jarri dugu martxan eta jendea bidaiatzera animatzen dugu euskarazko hitzen bitartez.

Kanpainaren bigarren fasean, nazioarteko publikoarentzako bideoa sortu dugu Donostiako proposamenekin.



5.4. Berdintasun plana

2021ean zehar, Donostia Turismoak jarraitu du **emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehen planean zehaztutako** esku-hartze ekintzak martxan jartzen.

Aipatu ditzakegu:

- Berdintasun-batzordearen jarraipena egiteko bilerak egitea, berdintasun plana ezartzeko prozesuarekin jarraitzeko.
- Donostia Turismoren Komunikaziorako tresnak (kanpo eta barne komunikazioa) berdintasunerako garrantzitsuak diren gaietarako informazio eta komunikazio eramaile gisa erabiltzea, esaterako, emakumearen inguruko nazioarteko egunetarako.

- Berdintasun-batzordea espezifikoki eta erakundeko gainerako pertsonak orokorrean prestatzeko berdintasun-prestakuntza eskaintzea.

- Ordainsarien Erregistroa erakunde eskudunak emandako tresnarekin egitea.

- Barne eta kanpo-komunikazioa inklusiboa izatea.

2021ean zehar, Konfidentzialtasun Batzordeak ez du inolako salaketarik jaso sexuagatik edo sexu-jazarpenagatik.

Erakundeak eskaintzen dituen kontziliazio-neurriak hartu dituzten pertsonen kopurua adieraziko dugu jarraian:

Kontziliaziorako neurriak	2021ean hartu zituzten pertsonen kopurua		
	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Aitatasun-baimena	0	1	1
Amatasun-baimena (6. astetik aurrera)	1	0	1
Edoskitzeko baimena	3	0	3
Lanaldi-murrizketa legezko zaintza dela eta (12 urtetik beherakoak)	3	0	3
Adingabeak zaintzeko eszedentzia (3 urtetik beherakoak)	0	0	0
Senideak zaintzeko eszedentzia	0	0	0
Eszedentzia boluntarioa	1	0	1
Soldatarik gabeko baimena	2	0	2
Denboraren eta lantokiaren malgutasuna	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Sartu eta ateratzeko malgutasuna	26	5	31
Eguerdian gelditzeko malgutasuna	26	5	31
Oporrak banatuta hartzeko aukera	26	5	31

5.5. Kudeaketa eredu aurreratua

Donostia Turismoak kudeaketaren hobekuntzarekin duen konpromisoaren aurrekariak hainbat urtez izan dituen Kalitatearen askotariko ziurtagiriak izan dira (CBren Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria 2012ra arte eta OITrako 2018ra arte), eta baita 2012tik EFQM ereduari egin dion jarraipena ere.

2021ean, programa hauek ezarri dira erakundeetan:

- Turismoaren estatu Idazkaritzak sustatutako SICTED Praktika On Aurreratuak, turismoaren sektorean SARS-CoV-19 koronabirusaren kutsatzeen arriskuak murrizteko.

- Basquetourrek sustatutako Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren programa.

Gainera, Kudeaketa Eredu Aurreratu jarraituz lehenengo autoebaluazioan lortu diren ondorioetatik egin da Donostia Turismoaren Plan Estrategikoa eta Turismoaren azken Gida Planari dago lotuta.

5.6. Ingurumenarekiko konpromisoa

Donostia Turismoa sentsibilizatuta dago ingurumenaren arazoarekin, eta gure jarduketa guztietan ingurumenarekiko errespetua txertatzea erabaki dugu.

Horretarako, ingurumeneko eta garapen jasangarriko balizko jardunbide egokiak egiteko konpromisoa hartu dugu, erakundeak ingurumenarekiko duen jarrera etengabe hobetzeko.

Besteak beste, helburu hauek ditugu:

Politika hau ingurumenarekin dugun konpromisoa erakunde osoari publiko egitea.


Indarrean dagoen ingurumen-legedi guztia betetzea.

Donostiako Agenda 21en proposamenetan parte-hartze aktiboa izatea.

Energiaren eta baliabideen kontsumoa murriztea, murrizketa-metodo efektiboen eta eraginkorren bitartez.


Materialen kontsumoa murriztea, bota beharrean berrerabiltzea, ahal bada, eta birziklapena eta material berrerabilgarrien erabilera sustatzea.

Ahal den guztietan, ingurumenerako hain kaltegarriak ez diren ekoizpen-materialekin ordezkatzeta.



Paperaren kontsumoa


	2019	2020	2021
Paperaren kontsumoa (orriak)	72.500	42.500	34.500
Paperaren kontsumoa (gramoak)	363.000	213.000	172.500



Elektrizitatearen kontsumoa (kWh)


DONOSTIA TURISMO S.A.
(kWh elektrizitatea)

2019	2020	2021
49.199	37.834	46.296



Uraren kontsumoa (litroak)

2019	2020	2021
192	125	148





2021ean zehar, Donostia Turismoak hitzaldi hauetan hartu du parte:

Turismogune adimenduna- teknologia ardatza, webinarra

Diagnostikoa, erronkak, ekimenak eta emaitzak egiterakoan teknologiaren ardatzak duen garrantzia. Teknologia ardatzaren arabera beste turismogune batzuk gomendatzea. 2021eko otsailak 17. Eider Calderon Donostia Turismoko zuzendariordeak online emandako hitzaldia.

Hirien jasangarritasuna eta 5.0 Turismoa, Alacant.

Hirien jasangarritasuna eta Connect Clean turismoa. 2021eko ekainak 17. Cristina Lagé Donostiako Udaleko Turismo Jasangarriko zinegotziak online emandako hitzaldia.

Turismo gastronomikoaren masterra, Basque Culinary Center

Turismogune Gastronomikoen Kudeaketa Eredua Turismo gastronomikoa Donostian. 2021eko martxoak 16. Isabel Aguirrezabala eta Eider Calderónek (Donostia Turismoko zuzendaria eta zuzendariordea hurrenez hurren) Basque Culinary Centerren emandako hitzaldia.

ASPREH XII. Jardunaldiak: ikusteko urritasuna duten pertsonek kirola, aisialdia eta turismoa sustatzea irisgarritasun unibertsalaren eta teknologiaren bitartez, donostia

Irisgarritasunerako estrategiak Donostian. 2021eko urriak 3. Eider Calderón Donostia Turismoko zuzendariordeak emandako hitzaldia.

Euskadiko turismogune adimendunen jardunbide egokiak, Gasteiz

Turismogune adimendunen proiektua ezartzeko hainbat turismogunek dituzten jardunbide egokien inguruko mahai-ingurua. 2021eko urriak 21. Eider Calderón Donostia Turismoko zuzendariordeak emandako hitzaldia.

Gipuzkoako turismoaren erronkak, Hondarribia

Gipuzkoako Foru aldundiak antolatutako elkarrizketen bigarren edizioaren barruan. 2021eko azaroak 4. Isabel Aguirrezabala Donostia Turismoko zuzendariak emandako hitzaldia.

Turismogune adimendunak - Datuen kudeaketa, webinarra

Turismogune Adimendunaren Eredua eta hura osatzen duten oinarriak, datuen kudeaketan arreta berezia jarritz. Kasu praktikoa. Donostia Turismogune Adimenduna. 2021eko azaroak 18. Eider Calderón Donostia Turismoko zuzendariordeak online emandako hitzaldia.





7. Sare nazionalen eta nazioartekoetan parte hartzea

Donostia turismoak sare hauetan hartu du parte:

ICCA - International Congress & Conference Association

Munduko Kongresuen, Batzarren eta Bileren enpresa, erakunde eta egoitza nagusiak ordezkatzeko mundu elkartea da. Munduko 100 herrialdeko 1.100 enpresa daude bertan.

ECM - European Cities Marketing

Turismo Erakundearen eta Europako hiriburu-Convention Bureauen sarean da, ezagutza partekatzeko, eta elkarlanean aritzeko operazioetan eta merkatu eta aukera berrien bilaketan. Jarduera informazioaren, teknologiararen, ikerketaren, estatistikaren, marketinaren eta komunikazioaren arloan garatzen du.

Egun, Europako 32 herrialdeko 134 hiri daude sarean,

Donostia Turismoak sarean hartzen du parte, baita City Cards, TICs, Digital Knowledge, eta Statistics and Research lan-taldeetan ere.

SCB - Spain Convention Bureau

Espainiako Convention Bureauen elkartearen helburu nagusia kide diren hirientzako sustapen-ekintza komunak egitea da, bai nazio barruan, bai nazioartean. Donostia Turismoa elkarteko lan-taldearen parte da.

Itourbask – Turismo Bulegoen Euskal Sarea

Turismo Bulegoen Euskal Sarea osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Bulego nagusiek.

OPC Basque Country – Kongresuak eta ekitaldiak antolatzen dituzten enpresa profesionalen euskal elkartea

Kongresuak eta ekitaldiak antolatzen espezializatuak dauden enpresak dira eta haien profesionaltasunak, esperientziak, eraginkortasunak, ikasketak, sormenak, berrikuntzak, jasangarritasunak eta eraginkortasunak bermatzen ditu. Enpresa erabakitzailerak dira eta, gainera, kalitate handiko zerbitzuen kudeaketa egiten dute.

Destinos Euskadi

Sarearen helburu nagusia marka horren pean dauden turismoguneak sustatzea da. Marka osatzen dute Bilbo Turismoak, Gasteizko kongresuen eta turismoaren udal-zerbitzuak, Bidasoa Aktivak (Hondarribia, Irun eta Hendaia), Zarauzko turismo bulegoak eta Donostia Turismoak.

Euskaliten kolaboratzaileak

Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren kolaboratzaileak dira eta helburua Kudeaketa Aurreratuko elementuak euskal erakundeetan ezartzea da, eta hala, Euskadiren lehiakortasunari eta garapen jasangarriari ekarpena egitea.

Egun, 800 enpresa aritzen dira lankidetzan eta horietatik 13 dira turismoaren sektorekoak.

Euskadi Gastronomia

Produktuen bikaintasuna eta gure sukaldarien esku ona Euskadiren nortasunaren ikur dira. Euskadi Gastronomika Klubak gastronomia ulertzeko modu hori sustatzen du, eskakizun eta konpromiso batzuk betetzen dituzten jatetxeek, tabernek, dendek eta beste establezimendu gastronomiko batzuek osatzen duten sarearen bitartez.

Surfing Euskadi

Surfing Euskadi produktuaren kluba Euskadin surf-turismo jasangarria eta antolatua garatzeko lan egiten duten 70 enpresa eta erakundek osatzen dute. Eskaintza surfarentzako baldintza ezin hobeetan eta beste jarduera turistiko batzuen uztarketan oinarritzen da, eta klubaren parte diren enpresen profesionaltasunak laguntzen die.

European Best Destination


Bruselan dagoen Europako erakundea da eta helburua Europan kultura eta turismoa sustatzea da, turismo-erakundeekin eta EDEN sarearekin batera. Europako turismoguneen dibertsitatea eta kalitatea sustatzen ditu.

Euskal Kostaldea

Eskariaren arabera egokitzen diren, ekonomikoki errentagarriak diren, ingurumenarekin bateragarriak diren, tokiko nortasuna duten eta ahalik eta ongizate sozial handiena sortzen duten produktu eta zerbitzu turistiko berezi eta kalitatekoek osatzen duten sare orekatua da.

TME

Turismoaren alorreko nazioarteko erakunde nagusia da. TMEk hazkunde ekonomikorako, garapen inklusiborako eta ingurumeneko jasangarritasunerako eragile gisa sustatzen du turismoa, eta ezagutzak handitzeko eta mundu osoan turismo-politikak sustatzeko lidergoa eta laguntza eskaintzen ditu.



**Donostia
San Sebastián**

sanebastianaturismoa.eus



**Donostia
San Sebastián**

sansebastianturismoa.eus